

hh  
hik hasi

**KIVA programaz Agueda Laraudogoitia**  
**Gure ondarea QR kodean**  
**Pedagogo sortzaileak:**  
**Bernard Aucouturier**  
**Gorputz-hezkuntzaren ekarpenaz**  
**HONTZA natur-zientzien museoa**  
**Eneko Bidegain**

512



MONTESSORI-ESKOLA

# elkar ILUSTRAZIO ETA IPUIIN LEHIAKETA



gizakiak: [www.elkar.euz-en](http://www.elkar.euz-en)  
eta elkar sareko liburu-denda  
guztietan

www.elkar.euz-en **elkar**  
Kulturak

lantaldeak: **LABORAL**  
ELKAS



laguntzaileak: **ERAZTEGAR**

**Kirikoletza**



**barrutots** *erakundearen gurea*



# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## AIURRI MONTESSORI-ESKOLA

Atzerrian Maria Montessoriren pedagogia-ereduan formatu ostean, euskaraz lan egiteko gogoz, Aiurri Montessori-eskola ireki dute ikasturte honetan Gasteizen. Duela mende bete iraultzailea izan zen metodoak aurrerakoia izaten jarraitzen du gaur egun, askatasunean, errespetuan eta material eta ingurune egokitan oinarriturik, haurra delako bere hezkuntza-proiektuaren ardatz.

ELKARRIZKETA / 18

## AGUEDA LARAUDOGOITIA

Euskal Herriko 52 ikastolatan bullyingari aurre egiteko KiVa-programa finlandiarra jarri dute abian urtarrilean. Programaren arduraduna da Laraudogoitia, baita Trapagarango Itxaropena Ikastolako ikasketaburua ere. Bere esanetan, bi xede nagusi lortu nahi dituzte programarekin: batetik, jazarpena prebenitzea, eta, bestetik, kasuren bat gertatzen denean modu egituratu eta sistematizatuan aurre egitea.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Diarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karnele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** GrafIk.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANtZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2017-01-19).

Kopurua: 4.100 ale.

Hik Hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Bullyngia: honaino!

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Aiurri Montessori-Eskola

18 ELKARRIZKETA

Agueda Laraudogoitia

“Pertsona bakoitzak den bezalakoa izateko eskubidea du, horregatik inolako kalterik jasan beharrik gabe”

26 ESPERIENTZIAK

Gure ondarea QR kodean

30 EKARPENAK

Pedagogo sortzaileak: Bernard Aucouturier

36 GALDEIDAZU

ALEX ALTUNA

Zer-nolako ekarpena egiten dio gorputz-hezkuntzak XXI. mendeko hezkuntzari?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

HONTZA natur zientzien museoa

42 ATZEKO ATETIK

Eneko Bidegain





# IZEI eta HODEI

animaliak



# Honaino!

## editoriala

GELA OSOA LOGARITMOAK IKASI GABE GELDITUKO BADA ERE, PROGRAMARI UKO EGIN BEHAR BAZAIO ERE, EZIN DA BOTERE-ABUSURIK, JAZARPENIK, TRATU TXARRIK, IRAINIK... ONARTU GELAN ETA EZTA GELATIK KANPO ERE.



**D**atua beldurgarria da: Ikasleen % 83,7k aitortu du jazarpenarekin lotura izan duela inoiz. Eta ikasleen % 45ek onartu du noizbait jarrera jazartzaileak izan dituenik.

Eta eskuak burura, denok larritzen gaitu bullyingak. Baina bai, benetan? Benetan arduratzen gaitu eskola-testuinguruan indarkeria zabaldua egoteak? Botere-abusua egoteak? Biktinek sufritzeak? Benetan kezkatzen gaitu gizarte bezala haurrak bortizkerian hezteak? Bortizkeria baliatzeak nor izaten ikasteko? Benetan arduratzen gaitu sistematikoki biztanleriaren kopuru batek jazarpena –gure ikastetxeko ikasle batzuek–, botere-abusua eta mendekotasuna sufrituko dituela jakiteak? Benetan kezkatzen gaitu ikasle bat ondoezik sumatzeak, beldurturik, ikastetxera joan nahi ezta ikusteak, triste, iraintzen entzuteak, bakartua ikusteak... Benetan arduratzen gaitu bullyingak? Bada, orduan, zeri begira gaude?

Ikastetxe-testuinguruan bortizkeria erabiltzen da, bai lehen eta bai gaur. Gizartea bortizkeriaren gainean eraikia dago eta eskola ez da isolaturiko eremua. Beraz, gizartea lehiakortasunean, konpetentzian, nagusikerian, oro bat indarkerian oinarritzen den bitartean, eskolak eredu hegemonikoa erreproduzituko du. Neurriak, beren beregi hartu ezean. “Honaino!” esan ezean. Indarkeria prebenitzeko erein egin behar da. Ekin, antolatu, erantzun. Lehentasuna eman, baliabideak jarri, formatu, eta zero tolerantzia izan. Zero. Honaino! Hartara, agian indarkeria gabeko ikastetxe batean hezi diren hurrek garatuko duten gizarte-eredua koopera-

zioan oinarrituko da, aliantzan, berdintasunean, elkartasunean, eta indarkeriak ez du izango kabidarik. Hartara, hurrengo belaunaldiko ikastetxeak indarkeria gabeko eremuak izango dira. Eta ez da utopia. Obligazio bat behar luke izan hezitzaile guztientzako.

Bitartean neurriak hartu behar dira. Gaia mahai gainera atera. Irakasleak formatu eta familiak sentsibilizatu. Etxean ezin dira seme-alabak mendekotasunean eta tratu txarretan hazi, lider eta nagusi izateko hezi, gero ikastetxean abegikortasunez jokatzeari nahi bada. Eta irakasleek ezin dute beste aldera begiratu haur bat gaizki ikusten dutenean, inoiz; haur bat indarkeria –irainak, biolentzia...– erabiltzen ari denean, sekula. Gela osoa logaritmoak ikasi gabe geldituko bada ere, programari uko egin behar bazaio ere, ezin da botere-abusurik, jazarpenik, mendekotasunik, tratu txarrik, irainik onartu gelan eta ezta gelatik kanpo ere, jolastorduan, jangelan, inon. Gizarte honek ezin du bullyinga onartu. Honaino!

KiVa-k erdiz erdi jotzen du: Agueda Larauogoitia ikastolen elkarteko KiVa-arduradunak dioten eran, erasotzailea eta biktima, barre egiten dutenak eta ezikusia egiten dutenak, irakasleak eta familia, eta gizarte osoa ateratzen da galtzaile. Ikastetxean irakatsi-ikasteaz harago, bizi egiten gara. Emaitzez harago, emozioak, enpatia, komunikazioa, kooperazioa... sartu behar dira ikastetxean. Buruez gain, gorputzak. Ikastetxeak espazio seguru izan behar du ikasle guztientzako.

Bene-benetan arduratzen gaitu indarkeriak?

**“Ziur nago kapitalismoaren gaitzak ezabatzeko bide bakarra ekonomia sozialista bat ezartzea dela, eta, horrekin batera, helburu sozialak dituen hezkuntza-sistema bat”**

Albert Einstein



## «HEZKUNTZAREN ALDEKO ITUN BAT» PROPOSATU DU CRISTINA URIARTEK

Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan hezkuntzan izango dituen jarduera lerro nagusiak aurkeztu zituen Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean, urtarrilaren 23an. Jaurlaritzaren asmoa Hezkuntzaren Euskal Lege bat onartzea da, eta, horretarako, akordio bat lortu nahi du. Sailburuaren hitzetan, «akordio horren abiapuntuak izan beharko du eragile politikoek, sozialek eta hezkuntzakoek elkarrekin egindako gogoeta batek». Horrekin batera, esan du Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen babesna Hezkuntza Sailaren jardunaren «oinarrizko elementu bat» izango dela.

Uriarteren arabera, XI. legegintzaldiak elkarrizketa izan behar du «ezaugarri nagusiztat». Ildoei dagokienez, Uriartek aipatu zuen irakasleen «egonkortasuna» lortzeko beharra, eta, horregatik, urtero LEP Lan Eskaintza Publikorako deialdiak egingo dituztela jakinarazi zuen. Jaurlaritzaren beste helburu nagusietako bat «proiektu eleaniztunak zabaltzea» izango da, «euskarari lehentasuna emanez». 500 ikastetxe baino gehiagotara hedatu nahi du eredu eleaniztun hori. Bestetik, sailburua pozik dago Heziberri planaren garapenarekin, baina adierazi zuen azken pausoa falta duela: «Oraingoa ordezkatzeko duen Hezkuntzaren Euskal Lege bat onartzea».

### **Jaurlaritzak 740 plaza eskainiko ditu hezkuntzako zazpi espezialitatetan**

Jaurlaritzak jakinarazi du otsailean egingo duela Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lan eskaintza publikoko (LEP) deialdia, zazpi espezialitatetan: haur eta lehen hezkuntza, ingelesa, gorputz-hezkuntza, musika, eta hezkuntza bereziko pedagogia terapeutikoa eta entzumena eta hizkuntza.

2015ean egin zen gisa honetako azken lan eskaintza publikoa. Jaurlaritzak azpimarratu duenez, orduan 275 plaza eskaini ziren arren, haiek eskuratu zituztenez gain beste 491 lagunek ere gainditu zuten proba. Horregatik, lan eskaintza egitea erabaki dute. Honela banatuko dituzte plazak:

Haur Hezkuntza: 227

Lehen Hezkuntza: 252

Ingelesa: 57

Gorputz Hezkuntza: 37

Musika: 36

Hezkuntza Berezia. Pedagogia Terapeutikoa: 105

Hezkuntza Berezia. Entzumena eta Hizkuntza: 26

### **Sindikatuak ez dute egoki ikusten LEP hau**

ELA eta LAB sindikatuak euren iritzia azaldu dute LEP honi buruz. Sindikatuak ez dute begi onez ikusten eskaintza. «Prekarietatea betikotzeko saioa» da ELArentzako. Gogor salatu du eskaintzak hartzen duen esparruan 9.500 lagun behin-behineko kontratuarekin lanean ari direnean 750 plaza besterik ez ateratzea. LABek hasieratik adierazi du LEP hau ondo egin ahal izateko eta bereziki gaitegiak egoki prestatzeko atzeratu egin behar dela.

## JEAN-RENE ETXEGARAI IZANGO DA EUSKAL ELKARGOKO LEHENDAKARI

Ipar Euskal Herriko 158 herriak Kontseilu komunitarioan ordezkatzeko hautetsiek Baionako auzapeza hautatu dute herri elkargoko presidente izateko, 157 bozeri esker. Jean-Rene Etxegarai, Bernard Lougare eta Jean-Jacques Doyhenart ziren hautagaiak, Baionako auzapezak garaipena lortu du.

Urtarrilaren lehen Euskal Elkargoa martxan jarri zuten arren, hilaren 24a arte, bozketa eguna arte, ez da lanean izan. Euskal Elkargoak hiru gune izanen ditu: Kontseilu komunitarioa, Batzorde iraunkorra eta Batzorde eragilea. Batzorde iraunkorra 69 kidez osatua izanen da eta eragilea 25 hautetsiz.

## UDALBILTZAK BERE JARDUERA EGOKITU NAHI DU ERREALITATE POLITIKO BERRIRA

“Udalbiltza Bagabiltza” gogoeta prozesua jarri du martxan erakundeak: apirilean, udal hautetsien iritzia bilduko ditu; maiatzean, herritarrenak; eta ekainean, eragileena. Bilera irekiak egingo ditu hainbat eskualdetan; edonork parte har dezake saio horietan, eta aukera egongo da Internet bidez ere ekarpenak egiteko. Uztailan, ondorioen txostena osatuko du, eta udazkenean aurkeztuko du.



# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria / Euskalerrria irratia

## EREMU EZ-EUSKALDUNEAN EUSKARAZKO HEZKUNTZA 14 IKASTETXETARA ZABALDUKO DU NAFARROAKO GOBERNUAK

lazko aurrematrikulazio kanpainan estreinakoz, Nafarroako eremu ez-euskalduneko familiek aukera izan zuten seme-alabak euskarazko eredu publikoan eskolatzeko. Urrats historikoa izan arren, administrazioak D ereduaren aldeko kanpaina informatibo eraginkorrik egin ez izanak eta matrikula-eskaeren sakabanatzeak erabat baldintzatu zuten euskarazko ereduaren hedatzea, eta azkenik, eremu ez-euskalduneko lau herritan soilik lortu zuten gutxieneko ikasle kopurura iristea: Caparrosen, Lodosan, Noainen eta Tafallan.

Aurki, zabalik egonen da 2017/2018 ikasturteko aurrematrikulazio epea —otsailaren 13tik 17ra izanen da—,

eta Hezkuntza Departamentuak metodologia hobetu nahi du, Erriberako guraso askok iaz izan zituzten arazoak konpontze aldera.

Lehenik eta behin, eskaintza trinkotuko du Nafarroako Gobernuak eremu ez-euskaldunean, D eredu eskainiko duten 14 ikastetxe publikoen zerrenda osatuta. Dagoeneko euskarazko lerroa duten lau zentzoez gain, beste hamar ikastetxetan eskainiko dute haurrak D eredu matrikulatzeko aukera: Allo, Antzin, Castejon, Cintruenigo, Larraga, Los Arcos, Mendigorria, Azkoién, Zangoza eta Tuteran herrietan. Modu horretan, eskaeren «sakabanatzeari» aurre egin nahi dio Hezkuntza Departamentuak.



## JARDUNALDI JARRAIA EZARRIKO DUTE ERRIBERAKO ESKOLA ASKOK

Haurrek klasea ordutegi jarraigoan izan eta eguerdi partean ateratzea da eskola jardunaldi jarraituaren apustua. Eguerdian umeak jaso ezin izanen lituzketen guraso horientzako ere badu alternatiba: jantokian bazkaltzen geratu eta eskolaz kanpoko jarduerak egin ditzatela haurrek, eskolan bertan, ohiko ordutegiaren irteera ordura arte.

Kontrako eta aldeko iritziak dauzka jardunaldi jarraiak: batzuen aburuz, ikasgai gehiegi ordu gutxian ezartzen duen bitartean; besteen ustez, malguagoa da. Gauzak nola diren, atzo amaitu zen eskolek Hezkuntza Departamentuari aukera hori hartuko zutela iragartzeko epea eta, dirudienez, arrakasta izan du: 40 bat ikastetxek bat egin dute. Familiei galdeketa egin dizkiete eredu ezarri aurretik, eta horren arabera txertatu dute. Batez ere, Erriberan izan du babes jarraia jardunaldi jarraiak.





## BASO-ESKOLAREN METODOLOGIAN FORMATZEKO IKASTAROA EGINGO DA MARTXOTIK UZTAILERA BITARTEAN

Kutxa Ekoguneak eta Bosquescuela-k elkarlanean antolatuta, baso-eskolaren metodologian formatzeko ikastaroa egingo da martxotik uztailera bitartean Donostiako Ekogunean. 72 orduko prestakuntza teorikoa eta praktikoa jaso ahalko da bost modulutan banatuta. Haurrak naturarekin kontaktuan nola hezi ikasi nahi duen edozein hezitzaile edo gurasori zuzendua dago ikastaroa. Moduluz modulu ondoko hauek izango dira jorratuko diren gaiak: natura ikasgela gisa; jolas librea aire zabalean; komunikazioa eta autoritatea; elementu naturalekin nola ikasi irakurtzen eta idazten; eta nola landu matematikak elementu naturalekin. Informazio gehiagorako edo izena emateko [www.bosquescuela.com](http://www.bosquescuela.com) webgunera jo daiteke.



## PSIKOMOTRIZITATE-PRAKTIKARI BURUZKO IX. ASEFOP NAZIOARTEKO JARDUNALDIA EGINGO DA BILBON OTSAILAREN 11N

*Gaur psiko! Leku magiko bat... magorik gabekoa* izenburupean Psikomotrizitate-Praktikari buruzko IX. ASEFOPeko Nazioarteko Jardunaldia egingo dute otsailaren 11n Bilboko Gran Hotel Bilbaon (Indalecio Prieto, 1). 9:00etatik 17:45era izango da jardunaldia, eguerdian atsedenaldiarekin. Beste batzuren artean, lolanda Vivesek "Psikomotrizitate-saiorako 7 giltza" izeneko hitzaldia emango du; Pilar Crespo poriektu prebentibo eta komunitario baten gainean jardungo da; edota Alvaro Beñaranek zailtasunak dituzten haurren gainean hitz egingo du. Informazio gehiagorako edota izena emateko [jornadaasefop@gmail.com](mailto:jornadaasefop@gmail.com) helbidera idatzi behar da.

## OTSAILAREN 17RA ARTE DAGO IREKITA CAF-ELHUYAR SARIETARA LANAK AURKEZTEKO EPEA

Urteroko legez, CAFek eta Elhuyarrek zientziaren eta teknologiaren arloko artikulua, kazetaritza-lanak eta proiektuak bultzatzen dituen sariketa antolatu dute. Otsailaren 17ra arte dago irekita sarietara lanak aurkezteko epea.

CAF-Elhuyar sarien helburu nagusia da zientzia eta teknologiaren arloko gaien eta ikerketen euskarazko gizarteratzea aitortzea eta bultzatzea. Horrenbestez, horretan dabilzan ikertzaileak, zientzia-zaleak, kazetariak eta sortzaileak animatu nahi dituzte sariketan parte hartzera. Informazio gehiagorako [cafelhuyarsariak.elhuyar.eus](http://cafelhuyarsariak.elhuyar.eus) helbidera jo daiteke.

## EBALUAZIO SISTEMARI BURUZ EZTABAIDATUKO DUTE OTSAILAREN 18AN GASTEIZEN

Hezkuntza Plataformen Topaguneak antolatuta, "Ebaluazio sistema eztabaidara" izeneko gogoeta-saioa egingo da otsailaren 18an Gasteizko Oihanederren. 10:00etan harrera egingo da eta ordu erdiz ebaluazioaren garrantziaz hitz egin ostean, "open space" talde-dinamikak egingo dira. Aldi bereko itzulpen-zerbitzua egongo da, baita haur-txokoa ere.



# HIZPIDE IZANGO DA

## TROKONIZEKO WALDORF ESKOLA EZAGUTZEKO BISITARAKO IZENA EMATEKO EPEA OTSAILAREN 10EAN IREKIKO DA



Trokonizen (Araba) dagoen Geroa eskolako proiektu pedagogikoa ezagutzeko egun osoko bisita antolatu du Hik Hasik martxoaren 25erako. Goizean, 9:00etatik 13:30era, Waldorf-pedagogiaren inguruko azalpen orokorra eta hezkuntza-proiektuaren gaineko informazioa jaso ahalko da bertako irakasleen eskutik. Arratsaldean, berriz, 15:30etik 18:30era taldeka banatuta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako nondik norakoen berri emango dute hezitzaileek, hamar urte baino gehiagoko ibilbidean pilatutako esperientziatik. Eguerdiko tartean, eskolan bertan bazkaltzeko aukera izango da. Izena emateko epea otsailaren 10ean irekiko da, eta [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunearen bidez egin daiteke. Plazak mugatuak izango dira.

Waldorf-pedagogia Rudolf Steiner (1861-1925) pentsalari eta hezitzailearen filosofian oinarritzen da. Filosofia horrek, haurraren bizi-beharrak asetzeko, haurraren eta haren garapen naturalean oinarritutako pedagogia proposatzen du. Era berean, haurraren garapen-beharretan laguntzea helburu duen hausnarketa-lanean oinarritzen da.

Pedagogia horretan, ikaslea da curriculumaren zioa. Eta haurra heztearen helburua haren gorputz-garapenean eta garapen psikologiko eta kognitiboan laguntzea da, nork bere autonomia lortzeko bidean. Era horretan, heldua denean inguruan era sortzailean jarduteko, libreki hautatzeko eta ekin-tzaile izateko. Gazte libreak hezi nahi dituzte Trokonizko Geroa eskolan, baina badakite libre izateko jakintza behar dela. Jakintza eskuratzeko bide horretan, tentu handiz zaintzen dute ikasle bakoitzaren ikasketa-erritmoa.

## PSIKOMOTRIZITATEAN SENTSIBILIZATZEKO IKASTAROAK ANTOLATU DITU LUZAROK 2017RAKO

Heziketa praktika psikomotorrean formatzeko bi urteko hurrengo ikastaroa 2018ko urtarriletik 2019ko abendura egingo bada ere, aurrez haurren heziketaren arloan lanean ari diren profesionalen zuzendutako lau sentsibilizazio-ikastaro antolatu ditu Luzaro Psikomotritate-Eskolak, ondoko helburuekin: taldean eta mugimenduaren bidez ongizate-egoera sensoriomotorretan parte hartzea; erlaxazio tonikoa eta luzamendu ariketak bizitzea eta barneratzea; denboran eta espazioan beste kideekin harreman tonikoa lantzea; norbere gorputzaren irudia lantzea; eta zutikako planoaren eta plano horizontalaren artean dauden diferentziaz jabetzea.

2018ko urtarrilean hasiko den 31. promozioari dagokion bi urteko psikomotritate-formazioa egiteko asmoa duenak, beste baldintza batzuren artean, Luzarok antolatutako sentsibilizazio-ikastaroren bat egina izan beharko du.

Ikastaroak ondoko egun eta tokietan egingo dira: maiatzaren 5, 6 eta 7an Bilbon; maiatzaren 26, 27 eta 28an Pasaian; eta irailaren 8, 9 eta 10ean Gasteizen. Izen-ematea 190 € kostako da. Informazio gehiagorako edota izena emateko [www2.uned.es/cabergara](http://www2.uned.es/cabergara) → berezko ikastaroak → psikomotritatea webgunera jo daiteke, edota [mberriozabal@bergara.uned.es](mailto:mberriozabal@bergara.uned.es) helbidera idatzi.



Magisteritza ikasi ostean, atzerrian Maria Montessoriren pedagogia-ereduan formatu ostean, euskaraz lan egiteko gogoz, Aiarri Montessori-eskola ireki dute ikasturte honetan Gasteizen 6 urte bitarteko haurrentzako. Duela mende bete iraultzailea izan zen pedagogo italiarraren metodoak aurrerakoia izaten jarraitzen du gaur egun mundu osoan, askatasunean, errespetuan eta material eta ingurune egokituan oinarriturik, haurra delako bere hezkuntza-proiektuaren ardatz. Haurren neurrira eginiko eskola da Jundizekoa, non esperimendazioaren, eguneroko bizitza errealaren eta Montessorik berak diseinaturiko material sentsozialaren bidez eta gida bide-lagun duelarik, haurrak bere beharren eta erritmoaren arabera ikasten duen eta garatzen den.

# GAIA:

# AIURRI MONTESSORI- ESKOLA

## Maria Montessori, mendea bete duen pedagogia aurrerakoia

**M**agisteritzako ikasketetan ikusi zuten Malen Olalde eta Nagore Pitillasek “haurrekiko errespetuan eta askatasunean oinarritzen zen pedagogia” zela eurak asetzen zituena, eta ez oro har hemen hedatua dagoen hezkuntza-eredu tradizionala. Biak Rebeca Wilden bidez iritsi ziren Maria Montessoriren pedagogiara, Olalde Wilden liburuetatik eta Pitillas Pestalozzitik bertatik. Maria Montessoriren hezkuntza-eredutik haurrak zer-nolako askatasunean bizi diren egiten zitzaion erakargarri Pitillasi. Limiteak argi dituen askatasuna da ordea, Montessoriren pedagogia-ereduak oinarrian duen askatasuna, Olalde zahaztu bezala. Autorearentzat askatasuna haurra autodiziplinan eta independentzian formatzeko bitarteko bat da: “Lehen haurtzaroko hezkuntzan, askatasuna nortasunaren garapenari mesede egiten dion baldintza gisa ulertu behar da, ikuspuntu fisiologikotik nola psikologikotik; eta eragiten dio kontzientziaren garapen libreari ere. Hezitzaileak, ondorioz, bizitzaren gurtze sakon batean inspiraturik, haurtzaroko bizitzaren nolakotasunari interes humano sakon batetik begiratu beharko lioke. Haurtzaroko bizitza ez da abstrakzio bat: haur bakoitzaren bizitza da”.

Indian formatu zen Pitillas Montessori-gida izateko, eta AEBetan egin zuen ondoren lan; eta Olalde Londresen formatu zen eta Costa Ricara joan zen ondoren lanera. Gasteiza etorri eta Ibone Del Pozo eta Nerea Peralesekin

—Katalunian formatuak dira biak— Aiurri Montessori eskola sortu dute ikasturte honetan Gasteizen, Montessori sistemaren bidez euskaraz irakasteko gogoz. Iazko irailean ireki zuten Jundizen ikastetxea, 6 urte bitarteko haurrentzat. 3 urte bitartekoak Haurren Etxean elkartzen dira Del Pozo eta Peralesekin —gaur egun 6 daude, baina 15entzako lekua dago—, eta 3tik 6ra bitartekoak Haurren Komunitatean elkartzen dira, Olalde eta Pitillasekin —12 haur daude eta 25entzako lekua dago—.

Lan itzela izan zen maiatzetik irailera eskola prestatzea, eta irekitzea, baina biziki motibagarria. Jundizko industriagunean eraikia zegoen eskola atondu, material guztiak aukeratu, erosi, prestatu eta asko eurak egin dituzte. Egitasmo pedagogikoa antolatu, matrikulazio- eta aurkezpen-lanak egin, homologazioa erdiesteko hilabete luzetako prozesu burokratikoan murgildu... “baina egunero-egunero hona lanera etortzea aukera zoragarria da —azaldu du Del Pozok—, eta haurrak zeinen gustura etortzen diren ikustea, benetan motibagarria”.

### **Maria Montessorik ikuspuntua aldarazi zuen**

Aurrerazaleztat kontsideratua bada ere, mende bete du Maria Montessoriren pedagogiak. Haatik, azken urteetan loraldi bat bizi du: ikastaroak, tailerrak, sare sozialetan blogak eta atariak... Montessoriren filosofia eta materialak bogan



GAIA:

## AIURRI MONTESSORI-ESKOLA

Mendea bete duen pedagogia aurrerakoia

daude. “Baina izen hori daraman guztia, ez da Montessori —azaldu du Olaldek—.”

Montessori-eskolak mundu osoan zabalduak daude gaur egun, asko eliteko eskolak dira, baina sorburuan Maria Montessorik (1870-1950) Erromako aldirietako haur pobreekin eta ezinduekin garatu zuen askatasunean eta limiteetan, estimulazioan eta errespetuan, eta, bereziki, haurraren oinarritzen den hezkuntza-sistema aurrerazale hau. Montessori Italian Medikuntzan lizentziatu zen lehen emakumea izan zen, eta filosofiatik, psikologiatik eta antropologiatik edan zuen pedagogiara iritsi aurretik, humanista handia zen, kristaua eta feminista. 1898an arazoak zituzten haurrekin lanean hasi zen, eta han ikusi zuen ume haien problema ez zela medikoa, pedagogikoa baizik. Haiei laguntzeko behatzen hasi zen, haurren natura ulertu nahian. 1907an lehen Haurren Etxea ireki zuen Erroman, eta bi urte geroago Montessori-gida izateko lehen ikastaroak eman zituen, eta mundu mailan hasi ziren eskolak irekitzen. Italian bertan zabalkunde handia izan zuen Montessorik idatziriko pedagogiak, Benito Mussolinik haurrak entrenatzeko erabili baitzuen haren metodoa, eta halatsu Adolf Hitlerrek Alemanian, Montessorik berariaz Mussoliniren laguntza ukatu zuen arte, eta bi diktadoreek euren herrialdeetako Montessori-eskola guztiak itxi arte. Montessorik Kataluniara ihes egin behar izan zuen, eta ordutik hainbat lekutan, hala nola, Herbeheretan, AEBetan, Indian... bizi izan zen.

Maria Montessorik honela zehaztu zuen bere pedagogiaren muina: “Hezkuntza berriaren oinarria haurraren beharrak

kontuan izan eta, bere bizitza osoki gara dezan, premia haiek asetzea da”. Hezkuntza tradizionalaren helburua “haurra etorkizun batean bizi behar zuen bizitza sozialerako prestatzea” zela zioen Montessorik, “Haurra ez da ez giza-pertsonalitate, ez gizaki-sozial gisa hartzen, etorkizunean nor izatera iritsiko den izaki bat da, eta formatua ez dagoen bitartean, pedagogia zaharrentzat, haurra ez da ezer. Baina ez, haurrak nortasun askea du, gizaki guztiek bezala”.

### Askatasuna, limiteak eta errespetua

Askatasunarena da Maria Montessoriren pedagogia-ereduaren printzipio nagusietako bat, eta Aiurri ikastetxeko gidak erakarri zituen kontzeptu nagusia ere bai. Baina askatasun hori limiteekin bat eginik dator, Olalde argitu bezala: “Haurrak askatasuna behar duen bezalaxe, limiteak behar ditu seguru sentitzeko. Eta lehen limitea da nire askatasuna bukatzen dela zurea hasten denean. Limite horiek guztiak, ordea, errespetuan oinarritzen dira: norbere buruaren errespetuan; gainontzekoekiko errespetuan bigarrenik, eta ingurunearekiko errespetuan hirugarrenik (materiala zaintzea, ingurunea zaintzea...)”. Errespetua baita, izan ere, Montessoriren metodoaren beste hitz gakoetako bat: batetik aipatu berri dugun errespetu hirukoitza (norbere buruarekiko; hurkoarekiko eta ingurunearekiko) eta, bestetik, haurraren errespetua da pedagogia-eredu hau berezi egiten duen gakoetako bat: “Haurren beharrak, interesak eta erritmoak errespetatzea da Montessoriren metodoaren muinetako bat —Pitillasen hitzetan—. 6 urte bitarteko haur hauek —eta nagusiagoek, eta helduok ere— beharrak dituzte, korrika egiteko beharra dute, oihu egiteko beharra... ez da kapri-




## GAIA: AIURRI MONTESSORI-ESKOLA

txo bat; beraz, behar hori mozten badiegu, korrika egiten uzten ez badiegu, edo mugitzeko aukeraren bat ematen ez badiegu, ondorioak izango ditu, ez du, adibidez, lan egiteko gogorik izango. Haurraren mugimendua errespetatzea, interesak errespetatzea, bere heziketa-prozesua errespetatzea da. Montessorik idatzia utzi zuen, ‘ez iezadazue niri jarraitu, jarrai iezaiozue haurrari’”.

Montessorirentzat haurra ikasketa aktiboaren bidez heltzen eta hezten da, pedagogoarentzat haurra izaki aktiboa baita *a natura*. Hartara, hezkuntzaren egitekoa haurrak dakarren jarrera hori, gizaki bezala osotasunean eta armonian errealiza dadin, gidatzea eta orientatzea da. Haur bakoitzari, bizitzako alor guztietan, bere gaitasunetan garatzen laguntzea da Montessoriren hezkuntza-helburua. Gaitasun sozial eta emozionalerako, jabeakuntza fisikorako eta jardun akademiko eta intelektualerako prestaketa kognitiborako bideratuak daude beraz, Montessori-eskolako jarduerak.

Horretarako guztirako, giden laguntza daukate haurrek: Del Pozo, Perales, Pitillas eta Olalderena, “gu ez gara irakasleak, gidak gara”. Montessori-eskoletan, gida bat eta laguntzaile bat egoten da haurrekin, gidak hala eskatzen duen haurrari arreta osoa eskaintzen dion bitartean, laguntzaileak gelako gainontzeko haurrak artatzen ditu. Aiurrin, ordea, laurak dira gida formatuak, eta egunez egun txandatu egiten dute gidaren eta laguntzailearen rola. “Gure lana, lehenengo, behatzea da —azaldu du Pitillasek—. Eseri eta haurrak behatzen ditugu: nola sartzen diren gelan, zer material aukeratzten duten, edo aurretik zenbat kostatzen zaien material bat aukeratzea —aukeratzen ikastea bera prozesu bat baita—, material batekin zenbat denbora daraman behatzen dugu, zer material eskain diezaiokegun haren interesa asetzeko... Hezitzaileok bigarren planoan jartzen gaitu Montessoriren pedagogiak, erdigunean haurra dago, haurra baita bere ikasketa-prozesuaren protagonista”. Honela idatzia utzi zuen Montessorik 1909an: “Gure sisteman hezitzaileak, aktiboa baino gehiago, pasiboa izan behar du, eta bi osagai dituen pazientzia behar du, jakin-min zientifiko handia eta behatu nahi duen fenomenoarekiko errespetu erabatekoa. Haurtzaroan bere dizdira intelektualarekin agertzen den gizatasuna, begirune erabatekoarekin errespetatu behar du gidak”.

Egunik egun, hilabeterik hilabete, kurtsorik kurtsorik, haurrak adinean aurrera doazen neurrian, gidaren parte-hartzea gero eta txikiagoa izatea da helburua. “Gidak gero eta pasiboa-goak izatea da asmoa, eta haurrak gero eta aktiboago euren ikasketa-prozesuan” —azaldu du Olaldek.



## GAIA: AIURRI MONTESSORI-ESKOLA

Mendea bete duen pedagogia aurrerakoia

Behaketaren ondorioz, gida formatuak jakingo du haurrak unean unean zer interes duen eta elikatuko du haren hezkuntza- eta garapen-prozesuan aurrera egiten laguntzeko. Izan ere, Montessorik zioen haurrek sentiberatasun bereziko garaiak igarotzen dituztela, 0-6 bitarteko epean haurrek adimen xurgatzailea dutela zioen, interes eta jakinmin bereziko etapak, “haurrek gaitasun eta posibilitate handiak erakusten dituzten garaiak dira. Esate baterako, haur bat une batean ariketa konkretu batean interesatzen da biziki, adinean aurrerago eginaraztea alferrekoa litzatekeen jardueran. Energia guztia ariketa zehatz horretan kontzentratzen duenean, haurra denbora luzez murgiltzen da jardueran eta zehaztasun eta pazientzia ikaragarriaz exekutzaten du, helduak ere imitatu ezingo lukeen zehaztasunez. Garai sentibera horretan funtzio bat beregana dezake, edo gaitasun batez modu perfektuan jabetu daiteke, esate baterako, garai batzuetan soilik barneratzen dira hizkuntza baten soinuak, eta jabe daiteke hizkuntzaz betiko primeran. Hezkuntzan garai sentibera hauek baliatzen baldin badira, emaitza ikaragarriak lortzen dira, inteligentziaren progresio jarraia eta uniformeari loturiko aurreiritziekin zerikusirik ez dutenak”.

Montessori-gidak, behaketaren bidez garai horiez jabetu eta haurren garai bakoitzeko interesa elikatu behar dute proposa den materiala, jarduera edo ekintza proposatuz. Horixe da, Aiurriko lau giden arabera, hezkuntza-sistema honen erronkarik zailena, “unean-unean haur bakoitza nola dagoen behatzea, zer interes duen eta nola elika daiteken aztertzea eta proposamen estimulagarri bat egitea” —Del Pozoren hitzetan—. Baina, era berean, Montessorik berak, gako horretan ikusten zuen bere metodoaren arrakastaren oinarria.

Bere hezkuntza-helburua lortzeko, eta haurrek garai sentibera bakoitzean duten interesa elikatzeko, printzipio didaktiko batzuk ezarri zituen Montessorik: Espazioaren antolaketa,

ingurune eta material egokituak haurren interesen arabera (garapen-aldi bakoitzari loturiko interesa), eta haurraren-gan zentraturiko didaktika (aktiboa beraz, indibiduala eta ikertzailea).

### Esperimentaziotik dator jakintza

Aiurriko espazio osoa zaindua da. Ederra da. Goxoa. Armoniosua. Ordenatua. Estimulagarria zinez. Eta natura deitzen du. Bost txokotan atonduak daude Haurren Etxea eta Haurren Komunitateko gelak: bizitza praktikoa; ingurune sentsoriala; lengoia; matematikak eta artea. Haurren Etxean sartu eta berehala eskailera hori bat dago, eta ispilu bat aurrealdean. Haurtxoak bere burua proban jarriko du eskaileretan gora eta behera, psikomotritate lodia landuz, eta ispiluan jarraituko ditu bere mugimenduak, bere burua eta gorputza ezagutzuz, gaitasunez eta ezintasunez jabetuz. Ondoa, hainbat material ditu bere tamainan, bere eskura. Montessorik berak sorturiko piezak dira, puzzleak, irudi geometriko eta kolore primarioetako material sentsorialak, enkajatzeko piezak, barneratzeko zilindroak... psikomotritate fina lantzeko. Ondoko gelan —Haurren Komunitatean— antzeko materialak izango dituzte, baina konplexuagoak. Manipulazioaren esperientziak dakar jakintza intelektuala. Beste txoko batean eguneroko bizitza praktikoko elementuak dituzte: botoiak lotzeko eta askatzeko oihaldun markoak; kremailetak... norbere burua zaintzeko txokoa, eskuak eta arropak garbitzeko txokoak... Lengoaia lantzeko materialak daude ondoan, beti ere objektu edo animalia errealetatik abiatutakoak... “Lengoiarekin hasiera-hasieratik hasten gara lantzen, guztiari hitza jartzen baitiogu, bai bizitza praktikoko gauzak egiten ari direnean edo baita material sentsorialekin lanean ari direnean ere”. Euskara eta ingelesa dira ikastetxean erabiltzen dituzten hizkuntzak, gida batek euskaraz egiten die haurrei eta besteak ingelesez, bi hizkuntzak barneratzen joan daitezten.





## GAIA: AIURRI MONTESSORI-ESKOLA

Hezitzaileen arabera, lanik handiena, une oro haurren erreferente eta eredu izatearekin batera, ambienteak ondo pentsatzea eta prestatzea da. Halaxe adierazi zuen Montessorik berak ere: “Hauxe da arazo berria: haur gogotsu eta aktiboarentzat egokituriko ambientea prestatzea. (...) Materiala eta ingurunea egokitzean, modu analogoan, estudioa ari gara bideratzen, trebezia intelektuala. Gure metodoak tradizio zaharrak hautsi ditu: haurra gelditu egotera behartzen duen bankua kendu du eta irakaslearen plataforma kendu du, hezitzaileak ez baitu gehiago ohiko metodoetan beharrezko diren lezioerik eman behar. Gauza hauek eraldaketa sakonago baten azaleko lehen ekintza dira, haurrari bere joera naturalen arabera libreki ekiten uztean oinarritzen den eraldaketa”.

Bizitza praktikoari eskainitako alorra eta material sentzomotorizarekin atunduriko txokoa erabiltzen hasten dira haur txikiak lehen-lehenik, eta, ondoren, oinarritzotik material konplexuagoetara, konkretutik abstraktura igarotzen dira, haur bakoitza bere erritmora, apurka matematiketara iritsiz. “Baina guztia prozesu bat da —adierazi du Olalde—, ikasketa-prozesu bat; adibidez, bizitza praktikoaren txokoa edo sentzomotorizatean erabiltzen dituzten objektuek 10eko oinarria dute, —dorre arrosak 10 aldeko 10 kubo ditu, adibidez—, irudi geometrikoak erabiltzen dituzte txikitatik... horrela urrats bakoitza hurrengorako prestaketa bat da”.

Guztiak material errealekin eta naturalekin osaturiko txokoak dira, armoniotsuak, eta ikerketa estimulatzen dutenak. Begietara ederrak. Eta haurren neurrikoak dira. Espazioak, Montessorirentzat haurren behar eta gaitasun fisiko eta psikologikoak ase behar baititu. Material eta esperientzia aukera zabal bezain zaindua eskainiko dituen ingurune egokitu da pedagogiaren beste oinarrietako bat. Montessoriren aburuz, “haurrak bere independentzia eskuratzeko eta libre izaten ikasteko, haurrarentzat ingurune estimulagarri eta

natural bat egokitzea da bidea, bere burua eraikitzeo aukera izan dezan deskubrimendu pertsonalaren bidez”.

Espazioak eta material gehienak antzekoak dira Aiurrin eta munduan zehar barreiatuak dauden ehunka Montessori-eskoletan, antzekoak baina bereiztasunekin: tokian tokiko kulturak, idiosinkrasiak eta ekosistemak bereizten ditu haurrei eskaintzen zaizkien materialak: “Txartelak erabiltzen ditugu, adibidez, objektuak eta izenak erlazionatzeko; animalien kasuan, esate baterako, hemen bertan aurki ditzaketen intsektuak dituzte txarteletan; garraio-bideen txarteletan, berriz, Gasteizen ikus ditzaketenak...” eta antzera, artearen txokoa aurki ditzaketen instrumentu, ipuin eta materialak ere, “Montessoriren beste printzipioetako bat da tokian tokiko kulturari garrantzia ematea”.

Baina txoko batek ez du zentzurik ondokoa gabe, guztiak orokortasunean hartzen du zentzua. “Osotasunean egiten dugu lan —azaldu du Pitillasek—. Haurrari ere osotasunean begiratzen zaio, hori izan zen Montessoriren beste ekarpenetako bat”.

Materialak dira eskola honen bereizgarrietako bat. Arreta deitzen dute sartu eta berehala. Txukun eta ordenaturik, guztiak haurren neurriko apalategietan, eskura. Maria Montessorik eta bere kideek urtetan egindako ikerketaren emaitza dira, pentsamendu logikoa eta ikerketa estimulatzeko tresnak dira, sinpleak baina erakargarriak. Material sentzorialak garapenaren etapa honetako haurren beharrei erantzuten dio, psikomotorizitatea eta inteligentzia lantzeko. Ikusmena, dastamena, entzumena, ukimena, garapen termikoa, muskularra... lantzeko aukera ematen duten materialak daude, zilindroak enkajatzeko, kuboak eta prismen dorreak eraikitzea, koloretako listoiekin eskailera eraikitzea, figura poligonalen eta esferikoen enkajatzeko, telak, buztina,



## GAIA: AIURRI MONTESSORI-ESKOLA

Mendea bete duen pedagogia aurrerakoia



kristalezko pitxerrak... etabar dute eskura. “Kanpoko mundua dago hemen —Pitillasen hitzetan—, mundu erreala”. Haurrak aukeratu duen material hori, edo horretarako prest ez badago bere interesekoa izan daitekeen aurreko material bat, edo errazegia bada konplexuagoa den bat, aurkeztu egingo dio gidak, aurkezpen formal baten bidez materialaren nolakotasuna azalduko dio haurrari, ondoren, berak manipula dezan, proba egin dezan.

Lanak, normalki indibidualak izaten dira, baina komunitateak garrantzi handia dauka eskolan. Olalde jarri du elkarlanaren adibidea: “Dilistak ontzi batetik bestera pasatzen ari den haurrari elikagaia lurrera erortzen bazaio —gaur goizean gertatu den bezala—, berehala datoz beste lau haur laguntzera”. Banakoa eta komunitatea baititu jomuga Montessoriren hezkuntza-programak, 1914an Nazioarteko Montessori-ikastaroan esan zuen bezala: “Biologiari dagokionez, guk banakoaren garapen naturalari lagundu behar diogu; eta ikuspuntu sozialari dagokionez, berriz, banakoa preparatu behar dugu ingurunerako. Hezkuntzaren bi fase horiek beti elkarrekin lotuak daude, eta bata edo bestea aurretik jarriko da, haurren adinaren arabera”.

Haur bakoitzak, egunean zehar, bere interesaren arabera egiten du lan material batekin edo bestearekin, txoko batean edo bestean, Olalde azaldu duen eran: “Haurrek, berez, alor guztiekin dute interesa, izatekotan material batekin edo bestearekin ez dute edukiko interesik, eta, hortaz, gure lana izango da erakargarriago zaion zerbait aurkeztea, alor bakoitza lantzeko; adibidez, Matematikak lantzeko material

asko baitaude”. Material horiek autozuzenduak dira, eta gidak ez dio jarduera “ondo” edo “gaizki” egin duen esango. “Guk ahalik eta gutxien erabiltzen dugu “ondo” edo “gaizki”; haur bati ura pitxer batetik bestera pasatzean erori egin baldin bazaio, joan eta garbitu egingo du; ez da gaizki egin duela, baizik eta ikasten ari dela. Ez dugu nahi haurrak gure onespena bilatzea; baizik eta bakoitzak bere buruarekiko onspena eta ziurtasuna dira garrantzitsuenak; beregandik gogoa piztea egindakoa hobetzeko”.

Norbere gogoa eta interesa ikasketa-prozesuan funtsezko estimulagarri dira. Baina baita ondokoak lanean ikustea ere. Adin ugari daude bi geletan nahasturik, eta 3 urtekoak 6 urteko haurra irakurtzen ikustea, adibidez, lanari ekiteko estimulu garrantzitsua da haurrentzat, garapen intelektualaren pizgarri ez eze, garapen sozial eta emozionalerako akuilu da. “Hori oso printzipio aberatsa da —Olalderen aburuz—. Bizitza horrelakoa da, ez gaude adinetan bananduak, eta hori oso aberasgarria da elkarbizitzarako eta ikasketarako. Handiek lagundu egiten diete txikiagoei, eta txikienek imitatu egiten dituzte handienak. 3 urteko haur bat 5 urteko haur bat letra baten soinuak esaten ikusten duenean, letrak elkarrekin jartzen eta irakurtzen ikusten duenean, 3 urteko haur hori oraindik lengoia idatzia eta irakurketa lantzen hasi ez bada ere, gutxinaka bere burua prestatzen ari da besteak ikusiz, eta interesa pizten zaio. Guztiak 3 urteko haurrak izango bagenu, hori ez zen gertatuko. Gidak gero eta rol pasiboagoa hartzen dugun neurrian, beste haurren esku-hartzea handitzen doa, eta adin desberdintasun hori beharrezkoa da. Behin berriro, eskolan gertatzen dena errealitatearen isla da”.

## GAIA: AIURRI MONTESSORI-ESKOLA



Emozioek leku handia dute Aiurrin, “eguneroko bizitzan, berez, lekua dutelako — Pitillasek dioen bezala—. Haurrak nola sentitzen diren, baina helduok ere nola sentitzen garen azaltzen dugu, gu ere gela honetako parte baikara, eta eurek ere euren emozioak sentitzeko eta ulertzeko, triste ote dauden edo nekatuta ote dauden azaltzeko, gu ere nola sentitzen garen azaldu behar dugu”. Ipuinak dituzte, bereziki, emozioez jarduteko tresna.

### **Egun bat Aiurrin: programaziorik gabeko ikasketa**

Eguna goizeko bederatzietan hasten da Jundizko ikastetxean, nahiz eta haur batzuk lehenago gelditzen diren zaintzan. Haur bakoitzak, egunean zehar, bere interesaren arabera aukeratzen du jarduera, materiala, txokoa. Egunak ez dauka programarik aurrez diseinaturik. Haurren Etxean hamaiketako egitera elkartzen dira ordu horretan. Del Pozok azaldu duen eran, haur bakoitzak manteltxo eta kubiertoak jartzen ditu, eta elkarrekin jaten dute fruta, jogurta edo dagoena. Haurren Komunitatean 10etan zerbitzatzen dute jana, fruta, jogurta, humusa ogiarekin... eta hurrek eurek zerbitzatzen dute nahi dutena goiz osoan zehar, eta banaka, binaka... jaten dute, baina nahi ez duenak ez du jaten. “Hamaiketako ere beren burua ezagutzeko garaia da, beste modu bat da: noiz daukaten gosea eta noiz ez ikustekoa, zer gustatzen zaien eta zer ez...”.

11:30etatik 12:30etara kanpora ateratzen dira Haurren Komunitatekoak. Bi belaze dituzte, eskolaren alde banatan, Waldorf materialarekin atonduak. Baina lehenago atera nahi duenak ere badauka aukera —gehienez bi atera daitezke aldiko—. “Ateratzeko beharra daukanari aukera eman behar zaio —kontatu du Pitillasek—; hemen barruan ezin dute

korrika egin, edo jauzi edo oihu... baina horretarako premia daukan umeari aukera eman behar zaio, gainera, bestela ez da gauza izango lanean kontzentratzeko”.

Eta hau guztia, haurren ikasketa-prozesua eta Maria Montessoriren sistemaren oinarriak, gurasoei komunikatzen dizkiete lau gidek. “Gurasoekin dugun komunikazioari garrantzia handia ematen diogu —azaldu du Olalde—. Egunean egunean, haur bakoitzari buruz eman dezaketene eta eman dezakegun informazioa garrantzitsua da, berandu esnatu dela, edo gaizki lo egin duela... informazio horrekin guk uler dezakegu haurra nola dagoen gelan... eta alderantziz, guk haur baten inguruan gelan sentitu duguna ere komentatzen diegu”. Dena den, onartzen dute hezkuntza-eredu tradizionaletik Montessori-eredura “deseraikitze” lan bat egin behar dela, baita gurasoen kasuan ere. “Haurrak, erabakiak eta aukerak egiteko ikasten joan behar duenez, gurasoak ere animatzen ditugu etxean hala joka dezaten, eskolaren eta etxearen artean harreman bat egon dadin. Etxean denbora guztian zer egin behar duen esaten badiote haurrari, posible da eskolan gero galdua sentitzea... Hezkuntza oso estriktotik erabateko libertinajera pasa garenez, garrantzitsua iruditzen zaigu, guk hemen askatasun eta limiteen artean, nola egiten dugun lan azaltzea”.

Hurrengo erronka homologazioa lortu eta Aiurri Lehen Hezkuntzara zabaltzea da. Maria Montessorik, berez, lehen haurtzarorako idatzi zuen bere pedagogia, baina bere kideek, mundu mailan, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak pentsatu eta garatu dituzte. “Gure haurren ikasketa-prozesuari jarraipena eman nahi diogu —azaldu du Del Pozok—.”





“Pertsona bakoitzak den bezalakoa izateko eskubidea du, horregatik inolako kalterik jasan beharrik gabe”

# ELKARRIZKETA: AGUEDA LARAUDOGOITIA

---

## KIVA-PROGRAMAREN ARDURADUNA IKASTOLEN ELKARTEAN

Euskal Herriko 52 ikastolatan bullyingari aurre egiteko KiVa-programa finlandiarra jarri dute abian urtarrilean. Programaren arduraduna da Laraudogoitia, baita Trapagarango Itxaropena Ikastolako ikasketa-burua ere, eta 33 urtez irakaskuntzan metatutako esperientziatik mintzo da: “Ikastoletan aspaldidanik ari gara bullyingaren gaia tratatzen. Ahalegin handiak egin ditugu jazarpenari aurre

egiteko, baina ziurtasun gutxirekin jokatu dugu askotan, duda asko izan ditugu gai honen inguruan... Egoera horren aurrean zerbait egin nahian erabaki dugu KiVa-programan sartzea”. Bi xede nagusi lortu nahi dituzte programarekin: batetik, jazarpena prebenitzea, eta, bestetik, kasuren bat gertatzen denean modu egituratu eta sistematizatu batean aurre egitea.

**Bullyinga pil-pilean dagoen gaia da. Zein da jazarpenaren inguruko errealitatea gaur egun Euskal Herrian?**

Hemengo errealitatea mundu mailako errealitatearen antzekoa da. Bullyinga egon badago, fenomeno unibertsala delako, mundu guztian gertatzen dena, nahiz eta toki batzuetan indar handiagoz ematen den beste batzuetan baino.

**Datuek diote ikasleen % 83,7k jazarpenarekin lotura duela. Eta ikasleen % 45ek onartu du noizbait jarrera jazartzaileak izan dituenik. Zergatik areagotu da bullyingaren presentzia?**

Nik ez daukat daturik bullyinga areagotu den edo ez esateko. Gertatzen dena da gaur egun jazarpenari arreta handiagoa jartzen diogula. Lehen bullyinga zerbait normala zen, pasatu beharreko afera bat, umeen kontuak... Eta, sarri, zera esan ohi zen: "Horrela ikasiko dute euren burua defendatzen". Orain, ordea, kontzientzia zabalagoa dago gaiaren inguruan. Denok onartzen dugu pertsona bakoitzak den bezalakoa izateko eskubidea duela, horregatik

inolako kalterik jasan beharrik gabe.

Ikerketek ere asko lagundu dute kontzientzia hori garatzen. Norvegian, adibidez, 70eko hamarraldian egin zituzten lehen azterketak, eta 80ko hamarraldian jada lehen planak ezarri zituzten abian. Pentsa noizko kontua den, nahiz eta gurean azken urteetan hartu duen indarra.

Hori bai, sorburuan, ikerketekin hasi zirenean, bullyinga ez zen orain bezala ulertzen, beste modu batera baizik. Pentsatzen zen, egoera edo ekintza baten aurreko erreakzio baten ondorioz gertatzen zela. Adibidez, uste zen ume bati nahi zuena egiten utzi ez ziotelako har zezakeela jarrera jazartzailea, edota haur bat besteak zirikatzen aritzeagatik izan zitekeela jazarria. Baina, ondoren, probatu zen bullyinga hori baino askoz gehiago zela. Ikerlariak konturatu ziren edozein bullying kasuren aurrean botere-abusua zegoela, eta taldean hartzen diren rol jakin batzuek eragin izabela zutela.

Hortaz, bullyinga areagotu egin den ez dakit, dakidana da gaur egun sentsibilitate handiagoa daukagula

gai horren inguruan, ikerketek argi utzi dutelako zer-nolako kaltea eragiten dion epe laburrean zein luzean, biktimari dudarik gabe, baina baita erasotzaileari eta talde osoari ere. Bullyinga ez da ona inorentzat.

**Aipatu duzu garai batean egoera batzuen aurreko erreakzio gisa ikusten zela bullyinga eta gaur egun botere-abusu gisa identifikatzen dela, non rol jakin batzuk sartzen diren jokoan. Nola identifikatu daiteke bullyinga? Zein ezaugarri ditu?**

Bullyinga gerta dadin errepikatzen den eraso bat egon behar du, pertsona berberari nahita egiten zaiona. Gainera, bullying kasuetan biktimak ez du erasotzailearen aurrean bere burua defendatzeko aukerarik izaten, ahulagoa bihurtzen delako psikologikoki, fisikoki edo gizarte mailan duen estatusagatik. Hortaz, ezaugarri horiek botere-abusu baten aurrean jartzen gaituzte. Hala, indar handiena duen umeak ahulagoa den bat eraso dezake, horrela bere burua beste ikasleen aurrean indartu egiten duelako, eta bullyingak boterea ema-





ten diolako taldean. Hori gertatzen da, bereziki, beste zenbait haurrek erasotzaileari jarraitu egiten diotelako edota haren jokabidea txalotu egiten dutelako. Beste taldetxo bat egon daiteke egoera hori jasan ezinik ezikusiarena egin eta gertatzen ari denari bizkarra ematen diona. Hala, eraso tzaileak, normalki, gelakideen aurrean bere burua indartuta eta boteretuta sentitzen du. Hortaz, alde batetik, aipatu dugun bezala, bullyinga gerta dadin, botere-abusua egon behar du eta bestetik ikasleek jokatzeko dituzten rola.

### **Ikasleek gelan hartzen dituzten rola aipatzen dituzenean, zertaz ari zara zehazki?**

Rola da gelan ikasleak jokatzeko duen modua, mugitzeko era. Zer zaren zu gelan. Adibidez, batek har dezake erasotzailearen rola eta horrekin boterea irabazi. Beste bat izan daiteke biktima momentu batean, baina rol hori har dezake eta gainontzeko guztientzako biktima bilakatu, izaera hori betikotuz. Izan ere, pertsonok talde batean baino gehiagotan gara partaide eta guztietan ez dugu berdin jokatzeko. Bakoitzean izateko era bat daukagu eta hori da talde bakoitzean jokatzeko dugun rola. Hortaz, ikasleek gelan rol batzuk hartzen dituzte. Eta gerta daiteke, nahiz eta oso arrunta ez izan, hemen rol bat izatea —jazar-tzailearena, esate baterako— eta aisialdiko taldean edota kaleko lagun-taldean beste bat edukitzea —biktimaarena, adibidez—. Izan ere, bullyingarekin loturiko kontu hauek oso korapilatsuak dira.

### **Botere-abusu hori nola gerta daiteke? Adibiderik baduzu?**

Izan daiteke fisikoa —txua botatzea, bultzatzea...— edota ahozkoa —irainak, ezizenak erabiltzea, isekak—. Horrekin lotuta, badago zeharkakoa deitzen diogun jazarpen mota ere. Biktimari zuzenean ez zaio ezer esaten, baina berari buruz txarto hitz egiten da beste talde batzuetan, kritikatu, zurrumurru gaiztoak eratuz... Horrek denak, normalki, bazterketa soziala ekartzen du. Eta, hain zuzen ere, beste bullying mota bat bazterketa soziala bera da: “Zuk

ez duzu gurekin jolastuko, zu hona ez etorri, zuk ospa hemendik...”. Jazarpen materiala ere hor dago: materiala desagertzea, materiala apurtzea... Eta, azkenik, ciberebullyinga, Internet bidezkoa, hain zuzen.

### **KiVa-programak arrakasta handia lortu du Finlandian eta baita nazioartean osoan ere, bullying kasuak nabarmen jaisteak lortu dituelako. Orain Euskal Herriko 52 ikastolatan ezarri da programa. Zer dela eta erabaki duzue programa hau ikastolara ekartzea? Zein arrazoi dago erabaki horren atzean?**

Ikastolatan aspaldidanik ari gara bullyingaren gaia tratatzen. Ahalegin handiak egin ditugu jazarpenari aurre egiteko, eta kasuren bat gertatzen ari zitekeela ikusi dugunean esku hartu dugu. Baina, bullying kasu bati aurre egitea lortu arren, hurrena beste lekuren batean agertu zaigu jazarpena. Gainera, ziurtasun gutxirekin jokatu dugu askotan, ez dugu jakin oso ondo nola landu bullyingaren gaia, ez dugu jakin egiten ari ginena zuzena ote zen, benetan eraginkorra zen... Irakasleok, sarri, duda asko izan ditugu gai honen inguruan, eta aldi berean, oso argi izan dugu bullyingaren ondorioz zenbat sufritzen duen umeak eta familiak.

Horrekin batera, jabetzen ginen zenbat kostatzen zitzaizkien guraso askori euren seme-alabak jazar-tzaileak zirela onartzea. Azken batean, nahiko gai gatazkatsua eta mingarria izan da guretzat bullyingarena. Horrelako kasuetan, gauzak okertzen hasten direnean guztiak ateratzen dira galtzen. Egoera horren aurrean zerbait egin nahi izan dugu eta KiVa-programan sartzea erabaki dugu.

### **Eta nolako ari da izaten KiVa Euskal Herrian inplementatzeko prozesua?**

Ikastolen Elkartearen bagenuen KiVa-ren berri. 2006an hasi ziren Finlandian programarekin. Hango Hezkuntza eta Kultura Ministerioak Turkuko Unibertsitateari eskatu zion bullyingari aurre egiteko programa bat garatzeko. Hainbat eta hainbat ikerketa egin ostean, eta frogak sendoekin, Christina Salmivalli buru zuen unibertsitateko taldeak KiVa garatu zuen.

Egun batez jakin genuen Turkuko

“Lehen bullyinga zerbait normala zen, pasatu beharreko afera bat, umeen kontuak... Orain, ordea, kontzientzia zabalagoa dago gaiaren inguruan”

“Bullyinga areagotu egin den ez dakit, dakidana da gaur egun sentsibilitate handiagoa daukagula gaiaren inguruan, ikerketek argi utzi dutelako zer-nolako kaltea eragiten dion epe laburrean zein luzean, biktimari dudarik gabe, baina baita erasotzaileari eta talde osoari ere. Bullyinga ez da ona inorentzat”



Unibertsitateko irakasle batzuk Madrilera zihoazela KiVa-programari buruz hitz egitera. Orduan hasi ginen pentsatzen akaso interesgarria izan zitekeela frogatuta zeuden erreminta eta bitarteko eraginkor batzuk eskura izatea jazarpenari aurre egiteko. Hala, kontaktuan ipini ginen Finlandiak Madrilen duen enbaxadarekin, KiVa-ren arduradunekin bilera bat egiteko. Gero, Bilbon izan genuen bigarren bilera eta hortik aurrera kontu hau forma hartzen joan zen. Programa martxan jarri ahal genuela ikusi genuen eta kontratu bat sinatu genuen Turkuko unibertsitateko taldearekin. Lehenik, ikastola guztientzako jardunaldi bat antolatu genuen Gasteizen, eta Finlandiatik KiVa-ren bi arduradun etorri ziren programa azaltzera. Han entzundakoarekin, ikastola bakoitzak erabaki zuen programan parte hartuko zuen edo ez. Guztira 52 ikastola apuntatu ginen. Gure ikastolako kideoi izugarri gustatu zitzaigun programa, ikusi genuelako oso egituratuta zegoela eta oso sistematikoa zela, eta gauzak hobeto egiteko modua eman ziezagukeela, ez bakarrik jazarpen kasu bat gertatzen denean, baizik eta baita prebentzioan ere, eta parte hartzea erabaki genuen.

Gerora, urri hasieran, zazpi irakasle Turkuko Unibertsitatera joan ginen KiVa-ren inguruan formatzera. Gero, hona etorri ginenean, hemengo 52 ikastolei eman genien formakuntza. Lehenik ikastola bakoitzeko KiVa-taldeko kideak eta tutoreak formatu ziren, eta haien bidez, ikastolako partaide guztiak.

#### **Zein helburu lortu nahi dituzue programarekin?**

Batetik, jazarpena prebenitzea, eta, bestetik, kasuren bat gertatzen denean modu egituratu eta sistematizatu batean aurre egitea.

#### **Bullyngaren prebentziorako zer lanketa mota egiten duzue KiVa-ren baitan?**

Prebentzio-mailan jarduteko KiVa-programak eskoletan lantzeko ikasgaiak eskaintzen dizkigu. Bi unitatek osatzen dute programa eta bakoitzean 10 ikasgai daude. Lehen unitatea 1. mailatik hasi eta 3. mailara lantzen dugu; eta, bigarren unitatea 4. mailatik 6.era. Ia ikasgai guztien lanketatik, bukaeran, arau bat ateratzen dugu eta arau hori ikasturte amaieran ikasleekin sinatzen den kontraturako izango da.

Izan ere, ikasturte amaieran ikasleekin KiVa-kontratua egiten da eta bertan zortzi arau inguru jasotzen dira: “Gure eskolan jazarpenik ez dugu onartuko”, “Biktimari laguntza emango diogu”, “Ez dugu utziko inor baztertzen”, eta antzekoak jasotzen dira bertan.

#### **Hortaz, ikasturte amaieran egiten duzuen KiVa-kontratua elkarbizitazarako marko baten modukoa dela esan daiteke?**

Bai, elkarbizitazarako marko baten modukoa da, baina bullyingean zentratzen da erabat. Lantzen ditugu emozioak, enpatia, komunikazioa, kooperazioa... Baina gero bullyinga jorratzera zuzentzen dugu lanketa hori guztia. Horrekin batera, ikasgai horietan ikasle bakoitzak gela barruan zein rol jokatzen duen ere aztertzen dugu: txalotzen duena den, bizkarra ematen duena den, erasotzailea den...

#### **Hain zuzen ere, taldearengan edo isilik geratzen diren ikasleengan jartzen du fokua KiVa-k, eta ez soilik biktimarengan edo erasotzailearengan. Azal dezakezu ideia hori?**

Batez ere horiengan eragin nahi dugu, jazartzailearen ekintzak txalotzen

dituztenengan eta jokabide horiei bizkarra ematen dietenengan. Badirudi ikasle horien jarrera aldatzen bada, eta erasotzaileari kasurik egiten ez badiote, pixkanaka jazarzailea bere jarrera aldatzen hasten dela eta erasoak egiteari uzten diola. Izan ere, ingurukoek kasurik egiten ez badiote eta bere ekintzak txalotzen ez badituzte, erasotzaileak ez du lortzen bere helburua betetzea, alegia, ez du erdies-ten botererik. Baizik eta kontrakoa gertatzen zaio: konturatzen da aurrez zuen botere hori galtzen ari dela, ingurukoek jada ez diotelako jaramonik egiten. Beraz, apurka-apurka bere jarrera aldatuz joango da.

Horrekin batera, gelan, orokorrean hainbat emozio lantzen dira: biktimak sentitzen duena, erasotzaileak sentitzen duena, bizkarra ematen duenak sentitzen duena, txalotzen duenak sentitzen duena... Nola egin dezakegu hori aldatzeko? Zelan egin dezakegu biktima triste egon ez dadin? Barre egiten duena errudun sentitu ez dadin? Horri guztiari aurre egiteko erremintak ematen zaizkie haurrei ere.

### **Hau guztia tutoretzetan lantzen duzue?**

Bai, Lehen Hezkuntzako tutoretzetan lantzen dugu. Hilero bi saio egiten ditugu gai hau jorratzeko. Ez da gehiagorik. Hori alde batetik. Gero, bestetik, irakasgai hauek badituzte online jokoak ere. Klasean landutakoarekin daude lotuta. Gelan jorratutako hori indartzeko balio dute. Hori egin dezakete ikastolan bertan edo gurasoekin etxean. Joko horietan umeak hainbat egoeratan ipintzen dira. Marrazki bidez egoera erreala izango liratekeenak aurkezten zaizkie. Adibidez, haur bati ez diotela uzten besteekin jolasten behin eta berriz, eta azkene-rako bakarrik geratzen dela. Orduan, jokoak esaten dizu: “Zu baldin bazara pertsonaia hau, zer egingo zenuke horrelako kasu baten aurrean?” Eta ematen duzun erantzunaren arabera, jokoak erantzun egiten dizu eta esaten dizu: “Zure erantzuna egokia da, biktimari eman diozu esku”, edo “Pentsatu ondo zertan ari zaren, zuk hartu duzun jarrerarekin biktimak bakarrik egoten jarraitzen baitu”. Eta antzekoak.

KiVa-ren logotipoa daramaten

txaleko horiak ere egin ditugu. Jolas-orduko zaintzaileek, jantokikoez, autobusekoek, gelaz kanpoko ekin-tzetakoek... jantziko dituzte. Hala, ikasleei gogorarazi nahi diegu, klase orduetan egon ez arren, KiVa-ikastola batean daudela, eta KiVa-ikastolan ez dela inolako jazarpenik onartzen. Pasilloetan ere txartelak eta muralak jarri ditugu. Horrekin ere, jazarpenik gabeko eremu batean daudela gogor-razi nahi zaie ikasleei, irakasleei nahiz gurasoei.

### **Hori guztia prebentzioari dagokionez, baina jazarpen kasuren bat badago, nola detektatzen duzue?**

Detekzioarako hainbat bide ditugu, baina bide horiek betikoak direla esango nuke. Alde batetik, gurasoak daude, eskolara etor daitezkeenak euren umeari zerbait gertatzen ari zaio-la esatera. Beste batzuetan, haurrak berak esan dezake zuzenean. Gelan edo pasilloan ikusten ditugun jarrera eta sentipenen bidetik, irakasleok ere kontura gaitezke. Edota beste ikasleren bat ere izan daiteke guregana datorrena jazarpen-kasu baten berri ematera.

Edozein kasutan, ikasle bat beti baka-rrik egoten bada, jolas-ordura irteteko edo etxera joateko beti azkenerako geratzen bada, ikastolara etortzen ez bada tripako mina edota burukoa duelako, beti triste badago... Hor zerbait ari da gertatzen. Izan daiteke bullyinga edota izan daiteke beste gauzaren bat, baina jokabide horien atzean zeozer bada-go. Eta momentu horretan jada, ume horrekin hitz egiten dugu, bai gurasoek eta bai irakasleok.

### **Eta jazarpena detektatu ondoren, zer? Nola esku hartu? Zer protokolo jarraitzen du KiVa-k?**

Bullying kasuei aurre egiteko KiVa-taldea dago. Talde horrek jazarpen-egoerei aurre egiten die modu egitu-ratu batean. Talde hori ikastolako 3-4 pertsonak osatzen dute. Normalki, zuzendaritzako kide bat egon ohi da, finean, zuzendariak duelako azken erantzukizuna legearen aurrean. Bestetik, ikastola bakoitzak bere KiVa-arduraduna du, eta beraz, arduradun hori ere KiVa-talde horretan egoten da. Edonor izan daiteke KiVa-arduraduna, nahiz eta gehienetan orientatzailea

“Bullying kasuetan biktimak ez du erasotzailearen aurrean bere burua defendatzeko aukerarik izaten, ahulagoa bihurtzen delako psikologikoki, fisikoki edo gizarte mailan duen estatusagatik. Hortaz, ezaugarri horiek botere-abusu baten aurrean jartzen gaituzte”

“KiVa-programaren Finlandiako arduradunen esanetan, kasuen % 78etan desagertu egiten da bullyinga; % 19tan hobetu; eta % 3an igo egiten da”





izaten den, eta gure ikastolan ere —Itxaropenan— halaxe da. Eta azkenik, hirugarren kidea beste irakasleren bat izaten da, gehienetan. Gure kasuan, adibidez, boluntarioki aurkeztu zen irakasle bat da.

KiVa-taldeko hiru kide horiek dira bullying-kasuari aurre egiten diotenak. Horretarako, lehenik biktimarekin hitz egiten dute, eta babes osoa eskaintzen diote. Gertatu denaren inguruan hitz egiten dute eta inprimaki batzuk betetzen dituzte, idatziz ere kasua jasotzeko. Gure laguntza osoa duela esaten zaio, hemen gaudela nahi eta behar duenerako. Gero, zuzenean, erasotzailearekin edo erasotzaileekin hitz egiten da. Bakoitzarekin hamar minutu, gehiagorik ez. Eta bilera horren helburua da jazartzaileak konpromisoa hartzea

bere jarrera aldatzeko.

### **Erasotzailearekin bilerak egiteko irizpideren bat izaten duzue kontuan?**

Bi modu daude elkarrizketa hori egiteko: zuzeneko eta zeharkakoa. Eta ikastola bakoitzak aukeratzen du zein eratan egin nahi duen bilera. Elkarrizketa zuzeneko denean, zera esaten da: “Badakizu honi txistua bota diozula eta gainera dutxetan dagoenean hormaren kontra zapaldu duzula, jada lau aldiz jarraian... Jarrera hori hemen ez da onartzen eta aldatu egin behar duzu. Hemendik aurrera zer egingo duzu pertsona hau ondo senti dadin?”. Zeharkakoan, berriz, ondokoa esango genuke: “Zure gelako ume hau oso txarto sentitzen da, oso minduta dago jasaten ari den erasoengatik, dutxetan

zegoela bultzatu egin dute, txua bota diote... oso gaizki ari da pasatzen. Beraz, zuk zer egin dezakezu zure kide honen egoera hobetzeko?”. Eta elkarrizketaren amaieran konpromiso bat hartzen dute erasotzaileek eta idatziz sinatzen dute: “Nik neuk ez dut egingo gehiago horrelakorik eta norbait ikusten dudanean esango diot ez egiteko”, adibidez, edota beste edozein.

Erasotzaileari ez zaio uzten gaia desbideratzen. Batzuetan biktimari errua botatzen hasten dira, hark beste kasuren batean egindako zerbait gogoraraziz: “Hau egin dut, baina berak ere beste batean...”. Kasu horietan ikasleari esaten zaio hori beste gai bat dela, baina orain ez direla kontu hartaz ari, eta nahi badu auzi horri beste batean helduko diotela: “Orain hori ez da gaia. Beste arazoren bat baduzu, gero saiatu gaitezke hori konpontzen, baina orain eraso honetaz ari gara hizketan eta honi jarri behar diogu konponbidea”.

Hala, oso epe motzean erasotzaile guztiakin hitz egitea lortzen dugu, eta bakoitzak bere konpromisoa hartzea. Gero, erasotzaile guztiak batera elkartzen ditugu eta bakoitzak bere konpromisoa ahots goraz irakurtzen du besteen aurrean. Eta hurrengo bilera adosten dugu erasotzaileekin. Ordu-rako, biktimarekin ere adostua izaten dugu hurrengo bilera, lehenik berarekin hitz egiten baitugu beti.

Hala, fasez fase jarraipen bilerak egiten ditugu, ikusi arte benetan aldaketa gertatzen ari dela eta jazarpena desagertzeko bidean dela. Noski, horrekin batera, batetik, gurasoekin hitz egiten dugu, eta haiekin elkarlanean aritzen gara. Eta, bestetik, tutoreak, gelan, taldearekin lanketa egiten du, bereziki, jazarpen-kasuen aurrean txalo egiten dutenak edota bizkarra ematen dutenak mugiarazteko eta biktimaren alde jarrazteko.

Bide horretatik, KiVa-programaren Finlandiako arduradunen esanetan, kasuen % 78tan desagertu egiten da bullyinga; % 19an hobetu; eta % 3an igo egiten da. Azken kasu horretan, bullyinga desagertzen ez bada, eta erasotzaileak berdin jarraitzen badu, araua aplikatzen da eta erasotzailea zigortu egiten da. Baina, gure nahia egoera horiek saihestea da. Guk ikastolara

datozen umeak hezi egin nahi ditugu eta jarrera desegokiak aldarazi, baina ez zigortu.

### **Familiek zein toki dute programan? Nola ari zarete familiekin lanean?**

Oso paper garrantzitsua jokatzan dute KiVa-programaren barnean gurasoek. Esate baterako, gure ikastolako kasuan, jada lehen eskutitza bidali zaie esanez programa honetan sarturik gaudela. Bilerak ere egin ditugu LHko guraso guztiakin programa osoa azaltzeko: KiVa-taldea nork osatzen duen, zein den programaren helburua, unitate didaktikoetan zer landuko den...

Horrez gain, propio gurasoentzat egindako gida bat dago online: *kiva-program.net/basque* edonork eskura dezake euskaraz eta gaztelaniaz. Gida horretan, batetik, teoria apur bat ematen da bullyingari buruz: bullyinga zer den, bullying mota desberdinak, umeek hartzen dituzten rolak... Bestetik, berriz, aholkuak ematen zaizkie gurasoei seme-alabekin hitz egiteko. Biktima izanik, erasotzailea izanik edo ikuslea izanik, zein mezu helarazi behar zaien esaten da eta euren egunerokoan nondik nora jo behar duten. Eta beste ezeren gaitetik, familiei ere gure babes osoa ematen diegu. Badakite ikastolan baliabideak ditugula jazarpen-kasuei aurre egiteko eta guregana jo dezaketela lasaitasun osoz.

### **Bullyinga ez da eskolan soilik gertatzen, kalea ere hor dago. Eta gaur egun, sare sozialen bitartez, erraz gaindi dezake eskolako eremua. Eskolatik haragoko eremu hori ere hartzen du programak kontuan? Nola eragin eremu horretan?**

Ciberbullyinga bullying mota bat da. Egia da gaur egun bullyinga eskolatik harago heltzen dela. Heltzen da umearen logelaraino, bere txokorik pribatueneraino. Ez beti, baina kasu gehienetan ciberbullyinga gertatzen denean, ikasgelan ere beste bullying motaren bat gertatu ohi da. Orduan, Turkuko Unibertsitateko KiVa-programaren arduradun Christina Salmivallik dio bullying modu tradizionalan eraginda, ciberbullyinga ere jaitsi egiten dela. Eta hori da gu ikastolan egiten ari garen lanketa.

### **Emaitza onak eman ditu Finlandian, baina hango testuinguru kulturala eta hemengoa diferenteak dira. Nola egokitu duzue Euskal Herrira?**

Egokitu dugu, bai. Baina moldaketa bereziki azalekoa izan da. Izan ere, muina berbera da. Adibidez, itzulpenak egiterakoan gureganatu egin ditugu kasuak eta haurrak izotz gaineko hockey-an ibili beharrean, esku-pilotan jokatzan jarri ditugu. Edota, beste zerbait esatearren, KiVa-taldearen osaera ere geure errealitateara ekarri dugu. Izan ere, han ikastetxeetan erizaina dute, udaleko giza-laguntzailea... Beste figura batzuk dituzte KiVa-taldeko kide direnak, baina guk beste egoera bat dugu eta hori ere moldatu egin behar izan dugu. Baina programaren funtsa, ikerketa sendotan dago oinarritua eta, han eta hemen berbera da.

### **Zein emaitza espero dituzue? Eta nola ebaluatuko duzue programa?**

Gure esperantza da ditugun jazarpenportzentajeak murriztea. Eta ebaluazioa? Dagoeneko horretan ari gara. Urtarrilean jarri dugu KiVa martxan, baina aurreko maiatzean ikasle eta irakasle guztiok — 18.000 pertsonak baino gehiagok — bete behar izan genuen online inkesta bat, gure ikastetxeetako bullyingaren gaineko ebaluazioa egiteko. Turkuko Unibertsitateko programaren arduradunek diagnostiko bat egin ahal izan zuten hala, programa martxan jarri aurretik errealitatea nolakoa zen ikusteko. Datorren maiatzean berriro beste balorazio bat egingo digute. Lau urtetan zehar jarraian beteko ditugu ikasleek eta irakasleok inkesta horiek eta hor ikusiko dugu KiVa-rekin zer-nolako eboluzioa izan dugun.

### **Hortaz, Turkuko Unibertsitateko taldea da 52 ikastolako KiVa-programaren arduradurak?**

Bai, haiekin egin dugun kontratuaren barruan, hitzartuta dago haiek direla programaren arduradunak. Turkun irakasle talde bat dago honetan aritzen dena. Eta oso gainean daude egiten ditugun gauza guztietan. Eta kontrolatzeaz gain, laguntza handia ere ematen digute. Edozein gauzatarako dei diezaiekegu, eta segituan artatzen gaituzte.

“Batez ere, jazartzailearen ekintzak txalotzen dituztenengan edota jokabide horiei bizkarra ematen dietenengan eragin nahi dugu. Badirudi ikasle horien jarrera aldatzen bada, eta erasotzaileari kasurik egiten ez badiote, pixkanaka jazartzailea bere jarrera aldatzen hasten dela eta erasoak egiteari uzten diola”

# ESPERIENTZIAK

NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEAREN PROIEKTUA

---

## Gure ondarea QR kodean

Proposamen honen xedea pertsonak txikitatik hiritar arduratsu izan daitezen heztea da. Arduratsu ingurumenarekin, begirunetsu naturako elementuekin, beren herriko eraikuntza historikoekin, arkitekturarekin, eta artatsu, azken finean, beren ondarearekin. Lor dezagun pertsonak beren ondarearen jakitun izatea eta arduratsu bilakatzea!

**P**roiektu honetan, Nafarroako 14 ikastolak hartu dute parte, 492 ikaslek eta 60 irakaslek (euskarakoak, ingelesekoak eta teknologia berrietakoak) guztira. 16 udalek parte hartu dute, eta, guztira, 750 artxibo sortu ditugu.

Ikasleek euren herrietan edo bailaretan bospasei elementu adierazgarri identifikatu dituzte, elementu arkitektonikoak zein ingurumenari dagozkionak. Elementu horien inguruko informazioa bilatu eta bildu dute, eta zehatz eta garbi deskribatu dute aukeratutako elementu hori, hiru hizkuntzetan gutxienez (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, eta, zenbait kasutan, frantsesez eta alemanez ere bai). Euskarri idatzia eta ahozkoa



**Irene Lopez Goñi**

NUPeKo irakaslea

erabili dituzte informazioa jasotzeko eta zabaltzeko, eta, QR kodeen bidez, publikoaren esku jarri dute informazio hori guztia. Lanketa horren bitartez, aukeratu duten elementu horren inguruko garrantziaz jabetzen hasi dira ikasleak. Prozesu honetan garrantzi berezia hartu du NIEko IKT taldeak, izan ere dokumentuak digitalizatzeko eta QR kodeetara bihurtzeko ezinbestekoa izan da bere laguntza. Halaber, hizkuntzetako irakasleen lana zein gizarte arlokoen aholkularitza ere aipatu behar da.

Urrats hauek egin dituzte, elementu adierazgarriak aukeratu dituztenetik QR kode bidez publikoaren esku jarri arte:

- Proiektua pentsatu eta bideragarritasuna aztertu dute.
- Proiektua diseinatu dute.
- Informatika-arduradunen mintegian aurkeztu dute euren egitasmoa.
- Zuzendarien mintegian mahairatu dute.
- Ikastoletako seigarren mailako ikasleekin landu dute proiektua.
- Hainbat erakunderekin (Vianako Printzea Erakundearekin eta Iruñeko Artzapezpikutzarekin) elkarriketak izan dituzte, proiektuaren egokitasunaz ados jartzeko.
- Vianako Printzea Erakundeak proiektuen zabalpenerako duen deialdian parte hartu dute, eta diru-laguntza lortu behar izan dute.





- Hainbat udali eta norbanakori baimenak eskatu dizkiete.
- Proiektua aurrera eraman dute.
- Zabalpen-lana egin dute.

### Proiektua aurrera eramateko arrazoiak

Proiektu hau aurrera eramateko, garrantzi handia izan du erabili dugun formatuak; izan ere, zabalkunde handia lortu dugu, batetik, hainbat hizkuntza erabili ditugulako, eta, bestetik, bilatu eta bildu den informazio guztia hainbat euskarritan zabaldu dugulako; ikusizko baliabideen bidez, batetik (idatziz eta argazkien bidez), eta entzunezko baliabideen bidez, bestetik. Irisgarritasunaz gain, berritasuna nabarmendu behar dugu, QR formatua hizkuntza berria baita ikasleentzat.

Beraz, teknologia berrien alorrean ikasteko aukera eman digu egitasmo honek.

Eleaniztasunari esker, atzerritar askorengana iristeko modua izan dugu, eta, beraz, Nafarroako ondarea zabaltzeko aukera eman du proiektuak. Baina, atzerritarrentzat ez ezik, interesgarria izan da nafarrentzat ere. Izan ere, 16 herri eta, hortaz, 16 udal egon dira tartean, eta interesgarria izan daiteke herritar horientzat, bereziki, euren herrietako ondarearen berri QR kodeen bidez jasotzea.

Nafarroaren ondarea izugarri handia eta baliotsua da, naturari zein arkitekturari begira, eta, lehentxeago aipatutako atzerritarrek eta herritarrek ez ezik, haurrak txikitatik ondare honen

garrantziaz eta zaintzaz lehenbailehen jabetzea eta horretan heztearen zeinen garrantzitsua den erakutsi digu lanean aritu garen guztioi. Neska-mutilak hiritasun arduratsuan hezi nahi baditugu, badugu zer eginik arlo horretan ere. Gertuko elementuak aukeratzeko, baliotsuenak identifikatzeko, informazioa biltzeko eta ahoz komunikatzeko ardura ematean, ondarearen zaintzaren protagonista bihurtu ditugu. Era horretan, Nafarroako ondarearen jakitun eta zaintzaile bihurtu nahi izan ditugu haurrak txikitatik, lan honen bidez.

Lana ez da amaitu; proiektu honetan jarraitzeko aukera ikusten dugu, eta prozesu hau guztia errepika dezakegu gure herrietako ondare guztia QR kodean ematen dugun arte!

### Hainbat erakunderen partaidetza

Ikasleak hainbat erakunde ofizialeko arduradunekin harremanetan jarri dira, proiektu hau aurrera eraman ahal izateko, besteak beste, Vianako Printzea Erakunde Ogasun Zuzendaritzarekin (Jesus Ascuncerekin hasieran, eta gaur egungo Carlos Martinez zuzendariarekin ondoren). Erakunde horretako Kultura Zuzendaritza Orokorreko sormen eta zabalkunde atalarekin ere harremanak izan dituzte. Iruñeko Artzapezikutzako hainbat pertsonarekin ere izan dituzte harremanak, bereziki, Carlos Ayerra ekonomo jaunarekin. Ikastolak dauden herrietako udal-ordetzarekin ere hitz egin beharra izan dute, bai eta NIE Nafarroako Ikastolen Elkarte ordezkariekin ere, zuzenda-














ritza eta proiektu-arduradunekin, hain zuzen ere.

### Zabalkunderako plana

- Egin dugun lana Nafarroako gizarte osoari aurkeztu diogu:
  1. Nafarroako Ikastolen Elkarteko arduradunen eskutik, prentsaurrekoa egin dugu parte hartu duten erakundeekin batera, egindako lana azaltzeko.
  2. Informazioa emateko, triptikoak zabaldu ditugu QR kodeekin. Turismo-bulegoetan eta aukeratutako beste hainbat lekutan utziko ditugu triptikoak.
- NIEko hezkuntza-komunitatean:
  1. Ikastola bakoitzean triptikoak banatuko ditugu.
  2. Ikastolen aldizkarietan artikulua argitaratuko dugu.
  3. Ikastolen Elkarteko "Ikastola" aldizkarian argitaratuko dugu.
  4. NIEko sare sozialetan argitaratu dugu berria (webgunean, Facebooken, Twitterren).
- Maila profesionalean zabaldu dugu berria:
  1. Aldizkari espezializatueta argitaratu dugu (Aula, Hik Hasi...)
- Ikastolan, familietan:
  1. Bisita gidatuak antolatuko ditugu, eta triptikoak banatuko ditugu bisita horietan.
  2. Ikastola guztietako QR kodeak banatuko ditugu.

## 2016an aukeratutako elementuak - QR kodeen zerrenda

\*Oharra: elementu gehiagoren informazioa eskuratzeko begiratu [www.nafarroakoikastolak.net](http://www.nafarroakoikastolak.net) webgunean

IKASTOLAREN IZENA	MONUMENTUAREN IZENA	QR KODEA
ANDRA MARI IKASTOLA	ARBIZUKO DORREA	
	ITURMENDIKO JAUREGIA	
	KONTZEPZIO BASELIZA	
	LAKUNTZAKO PIKOTA	
ARANGOITI IKASTOLA	AHUNTZEN ZUBIA	
	ARBAIUNGO ARROILA	
	BURDINBIDEKO ZUBIA	
	IRUNBERRIKO ARROILA	
	LAIKAKO ZUBIA	
ARGIA IKASTOLA	ANDRE MARI KATEDRALEKO EPAIAREN ATEA	
	EBROKO ZUBIA ETA TUTERAKO GAZTELUA	
	HUARTEKO MARKESEN JAUREGI BARROKOA	
	RUA KALEA ETA ALMIRANTEAREN ETXEA	



Nafarroako ondarea QR kodeen bidez lantzeko proiektuaren barruan, ikasleak landutako monumentua edota ondarea dagoen toki bakoitzera joan dira, bertan QRa eranstera, gero bisitariak informazio hori balia dezaten. Goiko irudian Aralarko Andra Marin ageri dira ikasleak. Behean, berriz, Ziordiko jauregian.






# PEDAGOGO SORTZAILEAK

## Bernard Aucouturier

*Pedagogo sortzaileak* izeneko monografikoa eguneratzen dihardu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak, eta datorren ikasturtean emango du argitara edizio berritua. Hainbat pedagogo liburuxkan txertatu aurretik, ordea, *hik hasi* aldizkarian argitaratuko du haien inguruko informazioa, pedagogiako zein psikologiako adituen eta arituen eskurik. Bernard Aucouturierren inguruko ekarpen hauxe da zerrenda horretan bigarrena.

**B**ernard Aucouturier 1934. urtean jaio zen, Tours-etik (Frantzia) gertu dagoen herri batean. Lau anai-arrebetan txikiena zen, eta gurasoak irakasleak ziren. Freineten pedagogiaren jarraitzaileak ziren, eta askatasuna ematen zioten eskolara bakarrik edo lagunduta joatea erabakitzeko, baita tarteka naturara ihesaldi “alternatiiboak” egiteko aukera ere.

Kirolzalea zen Aucouturier, eta, horren ondorioz, gorputz-hezkuntzako ikasketak egin zituen. Han ezagutu zuen Jean Le Boulch, gorputz-hezkuntza tradizionala ezbaian jartze-



**Alvaro Beñaran**

Psikomotrizista

ra eraman zuen irakaslea.

Geroztik, P. Vayer eta A. Lapierren lanekiko interesa agertu zuen. Eta Freud, Doltó, Ajuriagerra, Montessori, Dewey, Decroly, Freinet, Makarenko, Neill... eta beste hainbatenekikoa, ondoren.

1959an, gorputz- eta kirol-hezkuntzako irakaslea zen.

Aljerian egin zuen soldadutza; garai latza izan zen, eta planteamendu humanisten garrantziaz eta aniztasunaz jabetzea ekarri zion. 1961ean, Lyonen gorputz-hezkuntzako irakasle zelarik, haur gorren berreziketan lanean ari zen talde batekin lan egin zuen. Lan horrek bideratu zuen Aucouturierren ondorengo norabide profesionala: Toursera joan zen lan egitera, eta gorputz-hezkuntzako irakasle izendatu zuten, berreziketako espezialitatean (1962).

Garai hartan erabaki zuen ekintza-askatasunean eta haurren adierazteko ahalbidean —mugimenduaren, marrazketa librearen edota pinturaren bidez— oinarrituriko pedagogia praktikan jartzea.

Ikuspegi horrekin berarekin hasi zen heziketa-eremuan lanean. Frantziako 68ko *maiatza* dago mugimendu horren atzealdean. Mugimenduaren eta adierazpide sinbolikoen bidez haurren ekintza eta adierazpen libreak erabiltzeko posibilitateak ikertzen ari zela, Andre Lapierre ezagutu zuen, eta harekin kolaboratu zuen 70eko urteetan eta 80ko hamarkadaren



Bernard Aucouturier, 2003ko azaroan Bergarako Psikomotrizitate-eskolak antolatuta Gasteizen egin zen jardunaldian. *hik hasi* aldizkariaren 84. zenbakian argitaratutako argazkia da.

hasieran.

Ondoren, beste aro bat heldu zen: profesional talde batekin ASEFOP sortu zuen, Aucouturier Praktika Psikomotorraren Heziketa Eskolen Europako elkarte. Elkarte horrek biltzen ditu gaur egungo Aucouturier Praktika Psikomotorraren barneko Europako hezitzaile gehienak. Aucouturierrek 2009an utzi zuen elkarte.

Gaur egun, jarduera hezigarriak egiten jarraitzen du, Praktika Psikomotorraren Nazioarteko Eskolan.

### **Aucouturier Praktika Psikomotorra, oinarri teoriko-praktikoak**

Izendapena bera da nabarmendu beharreko lehen kontua: “praktika”. Ez da, beraz, teoria bat, praktika, pedagogia eta planteamendu terapeutiko bat baizik. Oinarriko abiapuntu bat du: haurra aseguratze- eta berraseguratzeko baliabide propioen sortzaile eta subjektu izateko — bai bere garapen-prozesuaren erronken aurrean, bai

prozesuan bertan sor daitezkeen zailtasunen aurrean —, haren gaitasun autonomoak bete-betean indarrean jartzea ahalbidetuko duten formula hezigarri eta terapeutikoak bilatu behar dira.

Bernard Aucouturierrek, haurrekin egindako lanetan, ikusten zuen gorputzarenak edo mekanika motorrarenak soilik ez ziren beste faktore batzuk zeudela ekintza motorrean. Eta ez zuen gustuko helduak zuzendutako ariketen dinamika, mugimendua “irakastera” edo haurren mugimendu desegokiak “zuzentzeraz” bideratua zegoena.

Horrek hainbat alderdi ikertzera eramane zuen, eta alderdi horiek izango dira bere praktikaren oinarria eta bere marko teoriko eta kontzeptualari zentzua emango diotenak:

- Ekintza-askatasunaren garrantzia.
- Ekintzaren globaltasuna, pertsonaren alderdi guztiak adierazten dituen (gorputzezkoak,

afektiboak eta kognitiboak).

- Haurrak helduarekin ezartzen duen harremanaren kalitatearen garrantzia.
- Ekintza, mugimendua, jolasa, hitza eta jarduera sinbolikoak, haurren nortasunaren adierazpide eta eraikuntzaren osagai direnez.
- Gorputzezko erregistroen oinarriko garrantzia helduaren eta haurren arteko harremanean.
- Haurren eta helduaren arteko harremana bien autonomiaren berme handienarekin garatzeko segurtasun-eremu bat izatearen garrantzia.
- Haurrak ibilbide bat, prozesu bat bizitzea ahalbidetzea; gorputzezko sentsazioak — eta haiei lotutako afektuak, emozioak eta sentimenduak —, irudiak eta adierazpen sinbolikoak (hitza, jolas sinbolikoa, ipuinak/istorioak, irudikapen plastikoak eta haurren unean uneko iza-

“Aucouturierren praktika psikomotorra ez da teoria bat, baizik eta praktika, pedagogia eta planteamendu terapeutiko bat da. Oinarrizko abiapuntu bat du: haurra aseguratze- eta berraseguratze-baliabide propioen sortzaile eta subjektu izateko —bai bere garapen-prozesuaren erronken aurrean, bai prozesuan bertan sor daitezkeen zailtasunen aurrean—, haren gaitasun autonomoak bete-betean indarrean jartzea ahalbidetuko duten formula hezigarri eta terapeutikoak bilatu behar dira”

tearen eta egotearen adierazpen simbolikoak ere diren ekintza motorrak).

Osagai horietatik abiatuta, metodologia bat eraiki zuen Aucouturierrek, “praktika psikomotor hezigarriko saioa”, zeinak berariazko garapena duen talde txikietako laguntza eta banakako terapia-eremuetan ere.

Haurraren ekintza librea onartzeak pedagogia “ez-direktibo” baten markoa sortzen du, hau da, ez dira lantzen motrizitatea “irakastera” edo “erabiltzera” bideratutako ariketak eta metodologiak, baizik eta markoa eta haurraren ekintza inguratzen duen guztia lantzen da, haurrak ahalik eta mugarik txikienarekin gauza dezan bere ekimena. Haurraren bat-bateko ekintza eta munduan izateko eta egoteko haren jatorrizko modua dira abiapuntuak.

Haurraren izatea ezaugarritzen duen globaltasunak globaltasun horri erantzun nahi dion saio-eredu baten eraikuntza dakar; espazioen diseinua, haurraren eskura jarritako materialen hautaketa, denboren antolaketa eta proposatu beharreko jarduerak hartzen dira kontuan.

Harremanaren garrantzia eta kalitatea dira praktika honen funtsezko ardatzetako bat, eta berebiziko lekua du psikomotrizistaren heziketan, hau da, bat-bateko ekintza global horretan haurrari garapen eta heltze psikologikoko prozesua eraikitzen lagunduko dion helduaren formakuntzan. Psikomotrizitate-saioetako egituraren garatutako aspektu teoriko eta metodologiaz gain, “Psikomotrizistaren formakuntza pertsonala” deiturikoa da; ez da terapia, ezta hazkunde pertsonaleko taldea ere, psikomotrizitate-gelan lan egingo duen profesionalak hainbat kontzeptu barneratzea helburu duen prozesua da: entzutea, enpatia, doitze-gaitasuna, prestasun toniko eta afektiboa, haurren bat-bateko ekintzak laguntzeko, onartzeko, sostengatzeko eta eusteko jarreraren garapena. Taldean egindako ibilbide pertsonal bat da, zeinean, bizipen-egoeretatik abiatuta, pertsonak bere buruaren kontzientzia hartzea bilatzen den, pertsonaren baitako sentazioen, emozioen eta irudien bidez,

bere burua eta haurrarena —eta harekin dagoenean gertatzen den guztia— hobeto ulertzeko baliagarria gerta dakion.

Psikomotrizitate-saioetan, haurren ekintzen bidez profesionalarengan pizten diren oihartzun guztiak bideratzea da helburua; modu horretan, profesionalak ekintza horien gainean egindako proiektzioen kutsadura ahalik eta txikiena izango da, eta haurren benetako beharretara egokitutako erantzunak sortzeko baliabide egokienak garatuko dira.

### Aucouturier Praktika Psikomotorra- ren oinarrizko kontzeptuak

- Adierazkortasun motorra: haurrak munduan izateko eta egoteko duen modu pertsonala da. Bere gorputz-jarreraren bidez, mugimenduaren bidez, ekintzen bidez, betetzen dituen espazioen bidez, jolasean erabiltzen dituen materialen bidez eta haiek erabiltzeko moduaren bidez, denboraren bizipenaren bidez, desplazamenduen bidez, helduekiko eta bere adinekoe-kiko harremanaren bidez... adierazten du.
- Larritasun arkaikoak, “gorputzaren galerakoak” (lehen 6-8 hilabeteetan): haurtxoak gertakizun afektibo mingarrien ondorioz espermentatzen dituen bizipenak dira; barneratu egiten dira, eta arrastoak uzten dituzte gorputzean. Bizitzaren lehen garai horretan egitura psikiko heldurik ez dagoenez, arrastoek “inkontziente korporalean” irauten dute, eta eragina dute etorkizuneko psikismoaren eraikuntzan. Desintegrazioarekin, zatikatzearekin, erortzearekin, urtzearekin, hedatzearekin eta gorputz-mugen galerarekin lotutako bizipenak dira. (D. Winnicotek jasotako kontzeptuak dira).
- Banantzeak, abandonuak edo “bestearen galerako” larritasunak (lehen 6-8 hilabeteetatik 30-36 hilabeteetara): bestearen presentziari edo haren faltari lotutako bizipenak dira, eta bere pertsona subjektu bereiz-





Bernard Aucouturier, 2003ko azaroan Gasteizen egin zen jardunaldian, Bergarako Psikomotritzitate-eskolako kideekin. *hik hasi* aldizkariaren 84. zenbakian argitaratutako argazkia da.

garri gisa eraikitzeke haurren ahalbideei eragiten diete.

- “Kastrazio edo osagabetsunaren” larritasunak (lehen 30-36 hilabeteen eta 6-7 urteen artean): gorputz-unitate bereziaren oinarritzko eraikuntzatik sortutako bizipenak dira, eta bat egiten dute Freuden “fase edipikoarekin”. Identifikazio sexualaren prozesuekin lotuta daude.
- “Berraseguratzeko-ekintzak/jolasak” heltze-prozesuan bizitako larritasunen aurrean: heltze-prozesuan bizitako larritasunak arintzeko edo gaintzeko haurrak erabiltzen dituen baliabideak dira. Plazer sensorial eta motorrean oinarritutako ekintzak izan daitezke, joko sinbolikoak...
- “Plazerezko afektuak eta displazerezko afektuak”. “Partekatutako plazera” haurren ekintzei

eta haien heltze-prozesuari zentzua ematen saiatzen den eraikuntza teorikoa da. Aucouturierrek funtsezko garrantzia ematen dio “plazerari”, haurrak izango dituen bestearekiko harreman-esperientzien kantitateak eta kalitateak plazerezko edo displazerezko sentazioak bizitzea ahalbidetuko diotelako. Sentazio horiek oinarritzko egitura bat osatuko dute, gorputzezkoa, lehenik, eta psikikoa, ondoren, bere buruarekin, bestearekin eta inguruarekin harremanak izateko modua baldintzatuko duena. Bestearekin “partekatutako plazeren” bizipena da motor nagusia nortasun osasuntsu baten garapena ahalbidetuko duen gorputz-unitatearen eta unitate psikikoaren eraikuntzan.

- “Ekintza-mamuak” edo “Ekintza-fantasiak” (“mamu” hi-

tzaren orde “fantasia” hitza hobetsi du berriki Aucouturierrek, frantsesez bi hitz erabiltzen direlako *mamua* adierazteko: “fantôme” (gazteluko gure mamua) eta “fantasme” edo “phantasme” (hauxe da Aucouturierrek erabiltzen duena eta “fantasia, haluzinazioa” esan nahi du). Larritasunak gaintzeko haurrak garatu behar duen gaitasunari buruz ari da Aucouturier, eta lehen aipatutako berraseguratzeko baliabideak sortzearekin lotuta dago. “Ekintza-fantasiak” sinbolizazio-gaitasunen hazia dira, haietara iristeko eman beharreko urratsa: haurrak bestearekiko harremanetan bizitako plazera erreproduzitzeko egiten dituen ekintzak dira. Beraz, ikusten dugunez, kontzeptu hauek guztiak elkarren artean loturik daude: larritasunak, plazera,

“Haurraren ekintza librea onartzeak pedagogia ‘ez-direktibo’ baten markoa sortzen du, hau da, ez dira lantzen motrizitatea ‘irakastera’ edo ‘erabiltzera’ bideratutako ariketak eta metodologiak, baizik eta markoa eta haurraren ekintza inguratzen duen guztia lantzen da, haurrak ahalik eta mugarik txikienarekin gauza dezan bere ekimena. Haurraren bat-bateko ekintza eta munduan izateko eta egoteko haren jatorrizko modua dira abiapuntuak”

berraseguratzeko-jolasak, ekintza-fantasiak eta adierazkortasun motorra.

#### Psikomotrizistaren jarrerak

Orain arte ikusi dugunez, bestearekiko harremana funtsezkoa da haurren heltze-prozesuan, eta, beraz, bestearen presentziaren kalitatea, hau da, haurraren ekintza eta adierazkortasun motorra hartzeko, entzuteko, ulertzeko eta erantzuteko duen modua.

Horren ondorioz, haurraren gaitasunak eta ekintza ez zuzentzeko eta ez ordezkatzeko psikomotrizistaren gaitasuna funtsezko osagaia da Aucouturier Praktika Psikomotorean; psikomotrizistaren eginkizuna da marko bat eraikitzea, haurraren ekintza-desirak martxan jarri ahal izateko ingurune egoki bat. Hori dela eta, jarrera-sistemaz hitz egin beharra dago:

- Haurraren gaitasunetatik abiatu, eta ez jarri arreta zailtasunetan edo “falta zaionean”. Hau da, konfiantza eta segurtasuneko ingurua sortu, haurraren ekintzarako desira sortu, horren ondorioz ekintza bera sor dadin, psikomotrizistaren arretazko begirada enpatikoa lagun. Helduak aitortutako ekintza-gaitasuna oinarrizko motorra izango da haurrak heldutasun psikologikoa eta autonomiako baliabideak eraiki ditzan.
- Entzute enpatikorako gaitasuna. Hau da, haurraren adierazkortasun motorrak gudan sortzen dituen oihartzun toniko eta afektiboen aurrean irekita egon, haren emozioak, sentsazioak eta aldarteak jasoz eta onartuz. “Distantzia egoki” batetik egin behar da, hots, nahikoa gertu egon behar dugu, haurraren bi- zipenek gu “uki” gaitzaten, baina nahikoa urrun ere bai, haiek har ez gaitzaten eta gure oihartzunek umea har ez dezaten. Hau da, elkar ulertze enpatiko batetik, haurrari berraseguratzeko baliabide autonomoak eraikitzen lagunduko dioten ekintzak eta jarrerak ekarriko dizkion harremana izan behar dugu.
- Lege-segurtasun figura izateko

gaitasuna. Hau da, haurrari neurritsua izaten eta egituratzen lagunduko dion erreferentzia bat, haren desira eta gaitasunak erreprimituak eta mugatuak izan gabe. Hau da, psikomotrizitate-gelaren oinarrizko legea —“ez minik hartu ez minik egin”— defendatzen duen erreferentzia bat, haurrak pixkanaka-pixkanaka sar daitezen sinbolikoaren eta errespetuzko komunikazioaren munduan.

- “Kide sinbolikoa” izateko gaitasuna, hau da, haurraren ekintza/jolasa lagundu, zuzendu eta baldintzatu gabe, zentzua eman eta balioan jarri. “Haurarentzat” egiten duen heldu bat, haren espazioa hartu ordez, espazio hori ahalbidetzen duena.

#### Bibliografia

Artikulu hau osatzeko erabilitakoa eta gaian sakontzeko gomendagarria:

- Arnaiz, P. eta beste batzuk: *La psicomotricidad en la escuela: una práctica preventiva y educativa*. Ediciones Aljibe. 2. argitaraldia. Malaga, 2008.
- Aucouturier, B. eta beste batzuk: *La práctica psicomotriz. Reeducación y terapia*. Editorial Científico-médica. Bartzelona, 1985.
- Aucouturier, B.: *Los fantasmas de acción y la práctica psicomotriz*. Editorial Graó. Bartzelona, 2004.
- Aucouturier, B.: *“L’enfant terrible”. ¿Qué hacer con el niño difícil en la escuela?*. Editorial Graó. Bartzelona, 2012.
- Aucouturier, B. eta Mendel, G.: *¿Por qué los niños y las niñas se mueven tanto? Lugar de la acción en el desarrollo psicomotor y la maduración psicológica de la infancia*. Editorial Graó. Bartzelona, 2004.
- Rota, J.: *La intervención psicomotriz: de la práctica al concepto*. Editorial Octaedro. Bartzelona, 2015.
- Van Nieuwenhoven, C. koord. Aucouturier, B. eta beste batzuk: *Miedo a nada... Miedo a todo. El niño y sus miedos*. Editorial Graó. Bartzelona, 2004.



# euskal eskola publikoa



Talde  
osoaren  
ahalegina

**aurrematrikula  
egiteko epea**  
urtarrilaren 30etik  
otsailaren 10era



On-line aurrematrikula:  
[www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net)



# GALDEIDAZU

## ZER-NOLAKO EKARPENA EGITEN DIO GORPUTZ-HEZKUNTZAK XXI. MENDEKO HEZKUNTZARI?


**H**ezkuntzak helbururik badu, etorkizuneko gizarteko kide izango diren horiei –eta egungoei– heziketa oso bat ematea da helburu hori. Xedea finka-tzerakoan erabateko adostasuna nabarmentzen bada ere, eztabaida sortu izan da hezkuntza-komunitatean, helburua gauzatzeko bidearen inguruan.

Urrutira joan gabe, Jose Ignacio Wert Espainiako Hezkuntzako ministro ohiaren LOMCE proposamenak oinarritzko ikasgaien ordu kopurua handitu nahia erakusten du, gorputz-hezkuntzaren kaltetan. Bada erabaki hori begi onez ikusten duenik, eta, beraz, ondo iruditzen zaio zenbaiti musika, artea, gorputz-hezkuntza eta horrelako ikasgaiak gutxitzea. Txanponaren beste aldean, gorputz-hezkuntzaren garrantzia aldeztu dutenak daude, eta, ordu gehiago eskatzeaz gain, irakasleen prestakuntzarako eta materialetarako baliabideak handitzea eskatzen dute.

Europarekin alderatuz gero, batez beste 53 ordu eskaintzen zaizkio gorputz-hezkuntzari Espainiako estatuan, eta, Frantzia edo Austria, 100dik gora eskaintzen zaizkio. 1978an, Gorputz Hezkuntza “denontzako oinarritzko eskubide” zela zehaztu zuen UNESCOk, hezkuntzaren oinarritzko



### ALEX ALTUNA GORPUTZ-HEZKUNTZAKO IRAKASLEA



elementu bat dela esanez.

Osasunaren Mundu Erakundeak asteen 3 ordutik 5era bitartean kirola egitea aholkatzen die haur eta nerabeei, eta bi baino ez dituzte egiten ikastetxeetan. Larriagoa da kontua, hamar haurretik hiruk jarduera fisikoa eskolan baino ez dutela praktikatzeko jakinda, eta 16 urtetik 18ra bitarteko nerabeen erdiak ez duela batere praktikatzeko. Oso datu kezagarriak dira, estatuan haurren % 40k gehiegizko pisua duela jakinda.

Datu horiek guztiek argi erakusten dute zeinen ezjakina den gizartea osasunaren eta jarduera fisikoaren garrantziaren inguruan, edota gizar-tearen utzikeria nabarmentzen dute. Egoera horren aurrean, ezin dugu ahaztu gorputz-hezkuntzaren egitekoetako bat, gorputzaren ezagutza eta motrizitate-gaitasunak garatzeaz gain, ohitura eta jokaera osasuntsuak sustatzea dela, bizi-kalitatea hobetzeko.

Pentsa liteke ezinezkoa dela haurren behar fisiko guztiak ikastorduetan asetzea, eta hala da. Baina jarduera fisikoa egitera bultzatzeko betebeharra du gorputz-hezkuntzak. Horrela, kirolaren garrantziaz eta onurez jabetuta, praktika eta ohitura osasuntsuetan trebatutako kideak izango ditugu gizartean etorkizunean. Jabe gaitzen,

beraz, gorputz-hezkuntzako irakasleok zer-nolako garrantzia duten gure saioetan planteatutako jarduerak.

Osasuna albo batera utzita, haurren izaeran murgildu nahiko nuke hurrengo lerroetan. Haurrak informazioz betetzeko egungo joeraren ondorioz, haien esentzia suntsitzen ari gara. Alvaro Bilbao neuropsikologoaren esanetan, “haurren adimena osotasunean garatzeko bidea ez da ordenagailu batera entxufatzea, haien garapen naturala errespetatzea baizik”. Haurrek irudimena erabili, jolastu eta mugitu beharra daukate, behar naturala da, eta, gaur egun, hori debekatzen ari gaitzaizkie.

Azken urteotako joera haurrak eskolaz kanpoko jardueretan apuntatzea da. Arestian aipatu dugunez, gorputz-hezkuntzako saioak ez dira nahikoa jarduera fisikoa egiteko dugun beharra asetzeko, eta eskola-kirola irtenbide aproposa izan daiteke gabezia hori betetzeko. Betiere, gaitasun motorrak lantzeko helburura bideratzen badugu eskola-kirola, eta ez lehiakortasunera. Komeni da xedea ez galtzea begi-bistatik, eta kirolariak ez, baizik eta pertsonak ari garela prestatzen gogoraraztea, kirola helburutzat baino bitartekotzat erabilita.

Bada gorputz-hezkuntzak arreta galarazten duela esaten duenik ere. Ikastetxeetan jarduera fisikoari denbora eskaintzea denbora galtzea dela dio zenbaitek, eta komenigarriago ikusten du beste zeregin batzuei ordu gehiago eskaintzea. Haurren izaera natural horren aurkako jokaera da haurrak ordu luzez ikasgelan geldirik eserita izatea, eta ikastorduak ariketa fisikoarekin ez uztartzeak orduen baliagarritasuna kaltetzea ekar dezake ikasteko garaian. Frogaturik dago jarduera fisikoa egin eta gero hobeto aprobeztatzen direla ikasteko orduak, kirolak eta eskola-errendimenduak zuzeneko transferentziarik ez badute ere.

Beraz, errendimenduaren aferak baditu zenbait ñabardura. Baliteke hezkuntzaren atzean dauden interes ezkutuek ondoren azalduko ditugun argudioak erabiltzea ahotan, euren nahiak asetzeko asmoz. Baliteke heziketa enpresa-mundura bideratu nahi duten horiek artearekin, musikekin eta gorputz-hezkuntzarekin

erlacionatutako inteligentziak saihestu nahi izatea, pertsona askeak sortu beharrean mendeko ikasleak kome-ni zaizkielako. Era berean, Gorputz Hezkuntza irakasgaiak PISA txostenean pisurik ez duenez, hezkuntzaren instrumentalizazioan itsututako horiek garrantzia kentzea ekar dezake.

Gure gurasoek Eskola Nazionalen jasotzen zituzten saioak ikuskera fisiologiko batetik bideratzen ziren, eta saioak entrenamendu militar bezala planteatzen ziren. Hala ere, gaur egun, praktika pedagogiko berritzaileak proposatzen dira, eta, ikasleen anatomiatik harago, garapen fisikoa, emozionala, kognitiboa eta soziala lantzeko bitartekoak ere bai. Beraz, gorputz-hezkuntzak alor horiei onurak ekartzeaz gain, esan daiteke irakasgai bakarra dela alor horiek guztiak aldi berean lantzeko gai dena, eta hezkuntzan garapen fisikoa lantzeko aukera ematen duen bakarra ere bada. Izan ere, motrizitatea da gorputz-hezkuntza beste irakasgaien alboan berezi egiten duen ezaugarri nagusia.

Gorputz-hezkuntzak ekarpen nabarmenak egiten ditu lau arlo hauetan: onura fisikoei dagokienez, gorputza kontrolatzen eta ezagutzen laguntzen du, eta gaitasun motorrak trebatzen eta gorputzaren garapena indartzen. Agerikoenak onura fisikoak badira ere, badaude gehiago: onura sozialei dagokienez, harreman afektibo ugari sorrarazten dituzten guneak dira eskoletako patio eta gimnasioak. Ekarpene emozionalei begira, beste irakasgaiek ez duten testuinguru batean gartzatzen denez, aukera ugari ematen ditu irudimena eta adimen emozionala lantzeko. Azkenik, onura kognitiboei dagokienez, ezinbestekoa da motrizitatea adimen motorra garatzeko, eta jakintza, ekintza eta emozioak uztartzen ditu.

XXI. mende honetan, gero eta ugariagoak dira bizikidetzak, balioak, osasuna, irudimena eta hausnartzeko gaitasuna bultzatzearen alde egiten duten ahotsak. Baina deigarria da, era berean, helburu horri ekarpen gehien egiten dizkioten curriculum-arloak baztertze-ko joera nabarmentzea. Zutabe horietan eraikitako hezkuntza izan nahi badugu, tokia izan behar du gorputz-hezkuntzak XXI. mendeko hezkuntzan.

**Gorputz-hezkuntzaren egitekoetako bat, gorputzaren ezagutza eta motrizitate-gaitasunak garatzeaz gain, ohitura eta jokaera osasuntsuak sustatzea da, bizi-kalitatea hobetzeko.**

**Haurrek irudimena erabili, jolastu eta mugitu beharra daukate, behar naturala da, eta, gaur egun, hori debekatzen ari gaitzaizkie.**

**Haurren izaera natural horren aurkako joera da haurrak ordu luzez ikasgelan geldirik eserita izatea, eta ikastorduak ariketa fisikoarekin ez uztartzeak orduen baliagarritasuna kaltetzea ekar dezake ikasteko garaian. Frogaturik dago jarduera fisikoa egin eta gero hobeto aprobeztatzen direla ikasteko orduak, kirolak eta eskola-errendimenduak zuzeneko transferentziarik ez badute ere.**



# Hazi Hezi



# Hazi Hezi



2017an **Hazi Hezi** haziera eta heziketa aldizkariaren harpidedun egitera gonbidatzen zaitugu 20 euroren truke (urtean 4 aldizkari)

**Elikadura**  
Elikadura, Alvaro Berrueta  
"Haurari beldurrik ez dione izan behar gurazoz eta beldura emaz ere".  
BERRUETA  
Elder Rodriguez

# Hazi Hezi



**Haur hezitzaileak**  
Haur hezitzaileak, Aitor Berrueta  
"Helduari sinetsarazi ditugu boterea erabil dezakegula Txetako".  
BERRUETA  
Kontziliazioa:  
Zer proposatzen dute  
BERRUETA

# Hazi Hezi



**Kontziliazioa Norvegia eta Islandian**  
Kontziliazioa, Aitor Berrueta  
"Gure erabakiek hartzeko ardura umeari gaitraitxe pasatzen".  
BERRUETA  
Bernardo Abrego



# ARGITALPENAK



## **POLIKI-POLIKI**

Xabier Deneux

### **TTARTALO**

Txori baten bizitza kontatzen duen puzzle-liburua da *Poliki-poliki*. Bidaia luze baten ondoren, txoria zuhaitz baten gainean pausatzen da, adiskide bat topatzen du, elkarrekin habia bat eraikitzen dute eta txorikumeak hazten dituzte. Baina txorikume horiek ere pixkanaka handitu egiten dira, eta euren kaxa hegan hasten dira, gurasoen kabia uzten duten arte.



## **PIKU AZPIAN**

Antton Kazabon / Jokin Mitxelena

### **DENONARTEAN**

Pikuak eta horien gozotasuna dira kontakizun honetan oinarri, nahiz eta ehiztaria giroa garraztera etorriko den. Izan ere, pikondoaren pareko dorretxeko pareta-zuloan txolarre amak sei kume ditu zain, eta janaria eman behar die gogotik, haziko badira. Kontaketa zortzi ekinalditan dago banatuta, boz gora plazer hutsez irakurtzen den testu batekin.



## **NILS HOLGERSSONEN BIDAIA MIRESGARRIA**

Selma Lagerlof / Olivier Latyk

### **IBAIZABAL**

Iratxo bati barre egin ondoren, Nils bihurriari sorginkeria bat gertatu zitzaion eta izaki ñimiño bihurtu zen. Txikitasun hark, ordea, abantaila bat eman zion: animaliekin komunika zitekeen. Hala, Martinen gainean abenturaz eta esperientziak beteriko bidaia zoragarri bat egitea erabaki zuen, Suediako lur, paisaia eta ohituretan barna.



## **AZKEN GUTUNA**

Antonis Papatheodoulou / Iris Samartzi

### **PAMIELA-KALANDRAKA**

Bazterra jaunaren azken laneguna zen hura. Azken laneguna, uharte hartako postari bakarrarena. Ez zegoen telefonorik garai hartan, ezta posta elektronikorik ere, eta berriek, nahitaez, oinez iritsi behar zuten... Hitzak postari goxo honek eramaten ditu uhartera. Bere azken lanegunean, inoiz ahaztuko ez duen zerbait gertatuko zaio.



## **MARTIN**

Alaine Agirre / Maite Gurrutxaga

### **ELKAR**

Martin desberdina da. Gauzak egiteko bere modua daukalako, edo gehiago kostatzen zaiolako. Baina kontalariak badaki Martin ez dela arraroa, normala dela eta maitagarria... nahiz eta berezi samarra izan. Desberdintasunari, integrazioari eta bazterkeriari buruzko album honek Espainiako OEPLI erakundearen Lazarillo saria jaso zuen.



## **ESCOLATIK ESKOLARA**

Xabier Iturbe eta Aitor Iturbe

### **LEKEITIOKO HERRI ESKOLA**

Lauzpabost urte lanean ibili ondoren, Lekeitioko Hezkuntzaren historia kontatzen duen *Escolatik Eskolara* liburua kaleratu du Lekeitioko Herri Eskolak: Haurreskolak, Eskolak eta Institutuak. Egileen arabera, liburuak aparteko aukera ematen du Lekeition mendez mende egon den eskola eta irakaskuntzari buruz jakiteko.

# PROPOSAMENA

## HONTZA natur zientzien museoa

### Ezagutu, maitatu, babestu

Mundu osoko 37.000 espezie baino gehiagoko ondarea biltzen du Durangaldeko Hontza Natur Zientzien Museoak, eta Zoologia, Botanika, Geologia eta Paleontologiaren arloak hartzen ditu. Erakusketaz gozatzeaz batera, hainbat urtetan naturak izan duen bilakaera ezagut daiteke, eta gaur egungo errealitatea ulertu. Duela bi urte atek ireki zituenetik, ikastetxeentzat prestatutako bisitak eskaintzen ditu bereziki.

2014ko azaroan, erronkaz beteriko 30 urteko lan gogorraren ostean, Hontza Natur Zientzien Museoak ireki zuten Mañarian, Urkiolako Parke Naturalaren atarian. Museoan ikus daitezkeen espezieetatik gehienak Enrike Huerta irakasleak bildu ditu, 50 urteko ikerlanean, jomugatzat planetako natur aniztasuna erakustea hartuta. Museoako arduradunen esanetan, “benetan ikusgarriak” dira Botanika, Fungi,



Geologia eta Zoologiaren atalak, eta era guztietako espezieen bildumak “harridura eragin diezaioke edonori”; horren erakusgarri dira, adibidez, Japoniako karramarro erraldoia edota Antartikako albatros herratua. “Esperientzia kultural eta didaktiko dibertigarria” bizitzeko gune apropos da, hortaz.

Hontza Museoak badu balio erantsi bat ere: Evaristo Bustintza *Kirikiño* Mañariko idazle ospetsua bizi izandako eraikinean dago. Barnealdean, berriz, naturak emandako altxor txikiak gordetzen ditu, bisitariari ingurumenaren balioaren berri emateko, “ezagutzen ez dena ezin delako maitatu, eta maitatzen ez dena ezin delako zaindu”. Hain zuzen ere,

horixe dute xede nagusi museoko arduradunek: natura ezagutaraztea, ingurumena maitatzen ikasteko eta babestu ahal izateko.

Museoak erakusketa iraunkorra, aldi baterakoa eta funtsa ditu, eta dinamikotasuna ematen dio horrek. Izan ere, aldi baterako erakusketa aldatu egiten dute ikasturte bakoitzean, eta baita erakusketa iraunkorreko hainbat ale ere. Hala, bisitariari pixkanaka funtsean gordeta dauden espezie guztiak erakustea dute helburu.

#### Adinera egokituta

Gaur egun, 650 ale inguru daude erakusketan ikusgai, 17 ataletan banatuta, “natur zientzien munduko sorta zabala eta adierazgarria”. Ateak


zabalik ditu Hontza Museoak edonorentzat, baina, bereziki ikasleentzat iruditzen zaie egokia arduradunei: “Adin bakoitzera egokitutako bisita gidatuekin, ikasleei, natur zientzien munduan murgiltzen laguntzen diegu”. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek, Batxilergokoek eta unibertsitatekoek ikasketetarako osagarri zaien materiala aurki dezakete. Eta, museoko arduradunek gaineratzen dutenez, eurentzat funtsezkoa da ikastetxeen babesa edukitzea; hala, orain arte egindako lan guztiak fruituak eman ahal izango baititu.

Ikasturte honetan, esaterako, aldi baterako erakusketan, ekinodermatuak (*Echinodermata filuma*) ezagut daitezke. Besteak beste, itsas izar eta triku ugariaren zenbait ale daude ikusgai. Parekorik gabeko bizidunak dira animalien erreinuan. Gaur egun, gutxi gorabehera 7.000 espezie bizi dira, eta 13.000 desagertu dira dagoeneko. Hala dio erakusketa horren inguruko informazioak: “Bazenekien ekinodermatu gehienak igeri egin eta herrestan ibil daitezkeela be-soei esker? Animalia horien izaera,

ezaugarriak eta bisitari gehienentzat ezezagunak diren bitxikeriak ikasiko dituzue erakusketa honekin”.

### Sareko datutegia doan

Hontza Fundazioa izeneko erakundeak kudeatzen du museoa. Herri-erakundeekin, bestelako erakundeekin, munduko museoekin eta arlo bereko lankideekin harreman formalak sustatzeko sortu zuten irabazi-asmorik gabeko fundazioa. Enrike Huerta da presidentea. 50 urtetik gora eman ditu ikertzen, landalanean, eta oldez edo moldez museo-ara heldu diren aleak identifikatzen, zaintzen eta gordetzen, gizarte osoak funts horretaz gozatzeko aukera izan dezan. Orain, Joseba Bikandi EHUko irakaslearen eta Hontza Museoako kolaboratzailearen laguntzarekin, datutegi zabal bat ipini dute sarean, doan. Datutegi horretan, 13.900 ale baino gehiago ageri dira, eta horien inguruko informazio zientifikoa eskaintzen da. Datutegia [hontzamusoea.eus/ikerkuntza](http://hontzamusoea.eus/ikerkuntza) gunean kontsulta daiteke.



### HONTZA natur zientzien museoa

#### Webgunea:

[hontzamusoea.eus](http://hontzamusoea.eus)

#### Informazioa eta bisitak:

[info@hontzamusoea.eus](mailto:info@hontzamusoea.eus)

#### Bestelako kontsultak:

[hontza@hontzamusoea.eus](mailto:hontza@hontzamusoea.eus)

#### Telefonoa: 946 216555

**Helbidea:** Ebaristo Bustinza *Kirikiño* kalea 18 – 48212 Mañaria (Bizkaia)

**Udako ordutegia** (apirilaren 1etik irailaren 30era): asteartetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara; larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**Neguko ordutegia** (urriaren 1etik martxoaren 31ra): asteartetik ostiralera, 17:00etatik 19:00etara; larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara; eta igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

**Prezioa:** 3 euro, 15 urtetik gorakoek.

\* Aurretiaz idaztea edo deitzea komeni da, bisitarien asmoekin ondoen lotzen diren egun eta orduak adosteko.

\* Gehienez 25 laguneko taldeak hartzen dituzte bisitaldiko. Baina bestelako turismo-jarduerak eskaintzen dizkiete denbora-tarte horretan kanpoan itzaroten geratzen direnei.





# ATZEKO ATETIK

---



## HERRI ESKOLA

**ENEKO BIDEGAIN** IDAZLEA, KAZETARIA ETA MU-KO IRAKASLEA

Ikastola, herri eskola” manifestazioko leloa belarrian haziginen, gure irakasleek soldata ziurtaturik ez zeukaten garaian, Frantziako hezkuntzak ikastolak onartzen ez zituenean, ikastolako ikasle izateagatik begi txarrez ikusten gintuzten urteetan... Baina argi genuen zein zen gure herria, bagenekien zazpi probintzia zituela, ohartu ginen euskarak batzen gintuela, ikasi genuen Nafarroako erresuma izan genuela, gureganatu genituen Bilintx, Txirrita, Xalbador edo Amuriza, deskubritu genituen Kalabaza Tripontzia, Tasio edo Akelarre, irri egin genuen Xirrixti Mirrixti antzerkiarekin edo Kuku-biltxoren ikuskizunekin, kantatu genituen Imanol Urbietaren kantuak, ezagutu genituen Daniel Landart bezalako idazle garaiki-deak eta Axularren denborakoak, bisitatu genituen Bilbo aldeko labe garaiak, Gasteizko legebiltzarra, Zuberoko mendiak edota Goierriko bazterrak, parte hartu genuen Euskal Telebistako saioetan, irakurri genituen Euskaldunon Egunkaria-

ren aleak....

Herri eskola zen, bai, ikastola; herritik egina eta herria egiteko. Hori da, funtsean, edozein herrik bere eskolari ematen dion helburua, bere herritarrak – hiritarrak – sortzea, bere herriaren erreferentzia historiko, geografiko eta kulturalak emanetz. Estatua aspaldi indargabetuta daukan Euskal Herrian hori egitea, ordea, “politika” egitea omen da. Estatuek erabakitzen dute zein izan behar diren haurrek jasoko dituzten edukiak, baina Frantziaren edo Espainiaren erreferentziak zabaltzea ez omen da politikoa. Bizkitartean, Frantziak eskola publikoa sortu zuenean, argi zeukan helburua zela haurrei frantsesa irakastea eta Frantzia maitaraztea; hots, helburua zen frantses hiritarrak sortzea.

Estatuek dute boterea gaur egun ere, eta gaur egungo gazteen erreferentziak horren araberakoak dira: gero eta gutxiago dira Lapurdiko hiriburua zein den badakitenak, Euskal Herriko mapa desagertu da testu-liburuetatik, gazteek ez dakite deus Euskal Herriaren historiaz,

euskara batua “artifizialtzat” hartzen dute anitzek baina biziki arrotzak zaizkie besteen euskalkiak, “hemen Espainian” edo “hemen Frantzian” erraten dute...

Herri eskola behar du Euskal Herriak, ikasketak bukatzen direnerako denek jakin dezaten marrazten Euskal Herriko mapa, denek ezagut ditzaten leku desberdinak eta bakoitzaren berezitasunak, euskara batua naturaltzat har dezaten eta beste euskalkiak ulertzeko gai izan daitezen, denek eduki dezaten gure historiaren oinarritzko ezagutza...

Hezkuntza giltzarria da, baina ez da zerbait isolatua. Gaur egungo hezkuntza sistemak islatzen du gure herriaren egoera, administratiboki desegituratua eta zatitua, Espainiaren eta Frantziaren nagusitasunaren eta legearen mende, ipar-orratz argirik gabe... Dena hertsiki lotuta dago, baina hezkuntzatik hasita ere balegoke zer egin, biharko euskal herritarrak, euskal hiritarrak sortzeko. Horretarako, Monzonek zioen gisan, “herri jakintza nahi dugu, eta jakintza herriarentzat nahi”.

# Haurreskolak Partzuergoa



## ZURE LASAITASUNA GURE HELBURU

Haurreskoletan  
izena emateko epea



Haurreskolak Partzuergoako Haur Hezkuntzako zentroetan 0 eta 2 urte bitarteko haurren izena eman ahal duzu.

Utzi zure eskaera haurreskoletan bertan,

Epeak:

2017ko urtarrilaren 9tik Bra  
2017ko maiatzaren 2tik Izra

Informazio gehiago:  
[www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus)



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA BAIKA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN





## “Trokonizko Geroa eskola” jardunaldia Rudolf Steiner-WALDORF pedagogian oinarritua

MARTXOAREN 25ean, larunbata, 9:00etatik 18:00etara

### Goiza. Aurkezpen orokorra:

- Rudolf Steiner-Waldorf pedagogiaren oinarriak.
- GEROA eskolaren Hezkuntza Proiektua. Ezaugarri metodologikoak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, harrera...

### Arratsaldea. Taldekako bizipen praktikoak:

- Haur Hezkuntza.
- Lehen Hezkuntza.
- Bigarren Hezkuntza.

Trokonizko (Araba) Geroa eskolan egingo da jardunaldia.

Informazio osoa eta izena emateko aukera otsailaren 10etik aurrera izango da Hik Hasiaren webean.

[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)